# ttipi ttapa

396

2005eko apirilaren 21a • XXV. urtea




## Amaiurko errota moldatuko dute 03

Moldaketa lanak egin ondotik, Amaiurko errotan landa apartamentua irekiko da. Errota berriz ere lanean hasiko da eta urtean 30 egunez ireki beharko da.



## Jone Fagoagaren denboraldi berria 28

Skeet Olinpikoan Nazioarteko Saria Valladoliden eta Nafarroako txapelketa Elizondon irabaziz ekin dio denboraldi berriari Jone Fagoaga tiralari lesakarrak.

BORTZIRIETAKO OSASUN KONTSEILUA

# Emakumeendako zerbitzuak sendotu nahi ditu 04



MUEBLES AMETS



larunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera BERAtik da**
*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE WEB ORRIA
**www.mueblesamets.com**













BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

pentsatu gabe... anima zaitez!

ORDAINTZEKO ERREXTASUNAK HILABETEKO KUOTATAN
- 3 - 7 URTEAK HAURRENTZAKO TALDETXOAK
- HELDUENTZAKO BAKARKAko ETA TALDEKO KLASEAK
- "KULTURA MUSIKALA" HELDUENTZAKO

DATORREN KURTSOAN
ULERTUKO DUZUE MUSIKA KLASIKAREN HIZTEGIA

Argibideak eta matrikula:
"Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskola
Legia, 26 • 31780 Bera
Telefonoa eta faxa: 948 631205
Ordutegia: Egunero 16:00etatik 19:00etara

Matrikulazio epea:
apirilaren 18tik maiatzaren 13ra

## DATUAK...

• Amaiurko errota zaharra moldatu eta landa apartamentua egiteko asmoa du Baztango Udalak.

• Errota Erratzuko hainbat etxeena da, portzionistena. Hauek, Baliko Udalari utzi diote 25 urterako.

• 185.866 euroko gastua izanen duten moldaketa lanen %70a Nafarroako Gobernuak ordainduko du, eta %30a Baztango Udalak. Baina zati hori, errota hartzen duenak ordainduko du zerbitzua hartzerakoan.



Argazkia: Tunu ITURZAETA

**Carlos GARAIKOETXEA** *Baztango zinegotzia*

# «Amaiurko errota lanean jartzeaz gain apartamentua eta denda irekiko dira»

Aitor AROTZENA

**Nola gelditúko da Amaiurko errota moldaketa lanen ondotik?**

Goitiko aldean landa apartamentu bat eginen da, bi logela, bere bainu ttikiekin, komedorea eta sukaldearekin. Hori turistei ostatu emateko izanen da. Beheitiko aldean, errotaren makineria dena, zaharberrituko dugu eta berriz ere lanean jarriko da. Behin moldatuta errota hartzen duenak, gutienez, urtean 30 egunez publikoari ireki eduki beharko du. Apartamentuan ostatu hartzen duenari ere erakustaldiren bat egin beharko dio, errotak nola funtzionatzen duen agertu, uraren kanala erakutsi, arras polita baita lekua. Hori da eskatuko zaiona. Gero, bere kabuz, egun gehiagotan ireki edo bisita gidatuak antolatu nahi baditu, Zubieta edo Urdazubiko errotetan egiten den bezala, horretarako aukera izanen du. Horretaz gain, errotako arkupean denda ttiki bat eginen da, hemengo produktuak, eskulanak, oroigarriak edo errotan jotzen den irina saldu ahal izateko.

**Zer aurrekontu duzue errota zaharberritzeko?**

«Guk ez diogu inori ateak itxiko, baina niri aunitz gustatuko litzaidake Amaiurko edo Baztango batek hartzea. Autoenplegua sortzeko aukera polita du»

185.866,45 euroko kostua izanen du, obra zuzendaritza eta proiektua barne. Horren %70a Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta %30a Baztango Udalak. Baina gure asmoa, zati hau errota hartzen duenak bere gain hartzea da. Horretarako, 25 urterako adjudikazioarengatik hasierako prezioa 70.000 eurokoa izanen da. Dena hasieran ordaintzea eskatuko dugu, baina gero, bertze 25 urtez ez du deus ordaindu beharko.

**Zer hartuko duzue kontuan errota ematerako orduan?**

Alde batetik eskaintza ekonomikoa egonen da, jakinai. Horrek 70 puntu bitarteko puntuazioa izanen du. Gero, kontratua gauzatzeko segituko duen lan-programari eta zerbitzuari lotuak izanen diren giza baliabide eta materialei buruzko memoria esplikatiboak 15 puntu balioko du gehienez, eta eskaintza egiten duenak bertze administrazio publiko eta erakundeendako azken urteotan eman duen zerbitzuengatik, esperientziarengatik azken finean, bertze 15 puntu gehienez.

**Errota nork hartuko duzuela uste duzue, partikular batek edo turismo arloan esperientzia duen enpresaren batek?**

Guk ez diogu inori ateak itxiko, baina niri partikularki, aunitz gustatuko litzaidake Amaiurko pertsona batek edo Baztango batek hartzea. Autoenplegua sortzeko aukera polita izaten ahal dela iduritzen zait, pertsona batendako edo birendako enpresa ttiki bat sortzeko aukera polita.

**Amaiurrek, errotaz gain, bertze baliabide turistikoak ere eskaintzen ditu gainera...**

Amaiurrek badu bere historia, monumentu batzuk baditu... leku polita da, eta Baztanek, berez, turistarentzat daukan gantxoarekin lotuta, ongi saltzen ahal dela eta negozioa aitzinera ateratzeko modua baduela uste dut.



Argazkiak: Aitor AROTZENA

**Pediatria zerbitzua sendotu egin da Lesakako eta Berako Osasun Zentroetan.**

## BORTZIRIETAKO OSASUN KONTSEILUA BERRIZ ERE LANEAN

# Emakumeendako Arreta Zerbitzua Bortzirietan ere eskaini nahi dute

**Duela hilabete batzuk Bortzirietako Osasun Kontseiluak Nafarroako Gobernuko osasun arloko arduradunekin izandako bileran, emakumeendako arreta zerbitzua Bortzirietan ere eskaintzea planteatu zen. Jakina da orain Baztan-Bidasoa osoko emakumeek, Zugarramurditik hasi eta Bera artekoek, Elizondoko Osasun Zentroan jasotzen dutela zerbitzu hori eta Bortzirietako ordezkarien eskaria bitan banatzea izan zen, Lesakako Osasun Zentroan ere zerbitzua eskaintzeko. Kontuan hartu behar da Bortzirietako emakumeen %20a bakarrik joaten dela Elizondora, joan-etorria nahiz itxaron-zerrenda luzeak izaten direlako.**

**Aitor AROTZENA**

Horregatik Bortzirietako emakume aunitzek Gipuzkoa aldeko zentro pribatuetara jotzen dute, ginekologia zerbitzuak jasotzera. Deñe Abuin, Lesakako zinegotziaren ustez, Elizondok eta Lesakak elkarrekin emanez gero, zerbitzua aunitz hobetuko litzateke. Nafarroako Gobernuko ordezkariak ados zeuden, baina leku gehiago behar zela aipatu zuten. Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkateak jakinarazi zien Lesakako osasun zentroa handitzeko aukera badela, gibeleko aldean eta Zahar Etxe aldera dauden lurrak Udalarenak baitira. «*Gero, profesional gutti zituztela erraten ziguten, pediatra gutti, ginekologo gutti… eta hor dagoela arazoa. Arazo hori beraiena da, argi eta garbi*».

Momentuz, Bortzirietako Osasun Kontseilua duela urtebete berriz ere lanean hasi zenetik, Osasun Zentruko gizarte-laguntza zerbitzua berreskuratzea lortu da. Deñe Abuinek adierazi duenez, orain guttienez lanaldi erdia eskaintzen da, eta lanaldi osora ailegatzea nahi dute. Lehen Bortzirietako Mankomunitateko gizarte laguntzailea eskualde osorako antzen zen eta, normala denez, ezin zen beharra duten pertsona guztiengana ailegatu. Bertze aldetik, pediatria zerbitzua ere sendotu da, Beran eta Lesakan eskaintzeko eta garai batean Bortzirietan eskaintzen zen emagin

## Deñe ABUIN *Bortzirietako Osasun Kontseiluko presidentea*



**Zeintzuk osatzen duzue Bortzirietako Osasun Kontseilua?**

Batzorde irekia da eta jendeak parte hartzea hagitz garrantzitsua da. Administraziotik, Arreta Goiztiarreko zuzendaria eta idazkaria etortzen dira. Osasun Zentrotik podiatra, zuzendaria eta erizainen-burua etortzen dira eta gero, udal ordezkariak. Halere, sindikatu guztiak gonbidatuak daude, kultur eta kirol elkarteak, irakasleak, orientatzaileak... Edozeinek hartzen du parte. Normalki 20-25 lagun elkartzen gara eta kopuru polita da ideiak emateko eta gauzak lantzeko.

**Emakumeendako Arreta Zerbitzua momentuz Elizondon eskaintzen da, baina Bortzirietara ere ekarri nahi duzue...**

Guk ez diogu Elizondori kendu nahi. Bortzirietan pediatrarekin zer egin dugu? Ikusten genuen mila haur bazirela Bortzirietan eta horietatik 500 Beran. Lesakako Osasun Zentrora 500 haur horiek mugitu beharrean, ez ote da logikoagoa pediatra Berara joatea? Honekin gauza bera egin nahi dugu: Elizondora 4.000 emakume mugitu beharrean, ez da erraxagoa Bortzirietara zerbitzua ekartzea? Administrazioak duen erreferentzia hemendik kopuru ttikia joaten dela da, baina kontuan hartu behar dute bakarrik %20 joaten dela, bertzeak denak pribatura joaten baitira, Irun edo Donostiara. Nere ustez, zerbitzu hori doan izateko eskubide osoa dugu, Corellan edo Nafarroako bertze herrietan duten bezalaxe.

**Eskari hori indartzeko, hor daude berriki egindako inkestaren emaitzak...**

Ikerketa horrek Bortzirietako emakumeen egoera aztertzen du. Publikoki aurkeztu beharra da oraindik, baina Iruñera joateko zati bat hartu genuen, osasun arloari buruz zer erraten duen jakiteko. Nabarmen agertzen da kasik emakume guztiek ginekologia zerbitzua eta familia planifikazio zerbitzua Bortzirietara ekartzea eskatzen dutela.

**Lehendik ere egin da eskari hau Bortzirietan?**

Bai, Berako Uxue Emakume Taldea 1998an hasi zen eskatzen. Nafarroako Gobernura jo zuten, Arartekora, ate guztiak jo zituzten eta lan handia egin zuten. Horrekin, Osasun Kontseiluak egiten ari den lanarekin... orain guztion inplikazioa behar dugu zerbitzua Bortzirietara ekartzeko.

> *"Elizondora 4.000 emakume mugitzea baino errazagoa da zerbitzua Bortzirietara ekartzea"*

edo matrona zerbitzua berreskuratzeko lanean ari dira Osasun Kontseilutik.

### Emagin zerbitzuaren barnean erditze aitzineko gimnasia

Momentuz, emagin zerbitzu horren barnean, erditzea prestatzeko ikastaroa antolatu dute. Maiatzaren 2an hasiko da, goizeko 11:30etatik 13:30etara Beti Gazte elkartean. Dena den ordutegia eta egunak, izena ematen dutenen interesaren arabera aldatzen ahal dira. Ikastaroa hasteko guttienez hamar lagun behar direnez, parte hartu nahi duten haurdunek lehenbailehen deitu beharko dute 948 581835 telefonora edo informazio gehiago eskatu Lesakako Herriko Etxean. Zerbitzu hau Bortzirietako emakumeei eskainiko zaie, edozein ginekologora joaten direla ere. *«Emakume guziek eskubidea dute joateko erditze aurreko programazio honetan parte hartzeko. Hamar emakumera ailegatzen ez bagara, maiatzean emanen da, baina ekainerako galduko dugu zerbitzu hori. Haurdun egonez gero, lanean ordu bat hartzeko eskubidea duzu egunero. Gimnasiaz gain, emagin programak baditu gauza gehiago, hitzaldiak. Ahal bada, programa osoa ekarri nahi dugu Lesakara».*

## BORTZIRIETAKO 400 EMAKUMEEI EGINDAKO INKESTA



**Bortzirietako emakumeen %38,5arentzat langabezia da arazorik handiena.**

Berriki jakinarazi dira Soziologia Lantegia enpresak Bortzirietako gizarte zerbitzuen eskariz 400 emakumeri egindako inkestaren emaitzak. Horietatik %96ak eskualdean ginekologia zerbitzua izatea eskatzen du eta %93a familia planifikazioa zerbitzua jartzearen alde dago. Osasun arloan ongi zainduak sentitzen ote diren galdetutakoan, emakumeen %2,8ak "hagitz ongi" erantzun zuen, %45,5ak "ongi", %32,5ak "erdizka", %13,3ak "gaizki" eta %3,8ak "hagitz gaizki".

Ikerketaren arabera, jubilatuen egoitza da eskualdeko zerbitzu eta erakundeen artean banaz bertzeko puntuaziorik onena lortu duena, 7,2. Ondotik Osasun Zentroak 5,9 eskuratu du eta herriko elkarteek 5,7. Udaletxeek hartu dute puntuaziorik eskasena, 5,2koa banaz bertze. Bortzirietako emakumeei eragiten dien arazorik nagusia langabeziarena da, galdetutakoen %38,5ak hori erantzun baitu. Ondotik etorriko lirateke garraioa (%20,5), eskualdean ginekologia eta familia planifikazio zerbitzurik ez izatea (%17,3) eta etxebizitza eskuragarririk ez izatea (%15,3).

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen banaz bertzeko adina 44,6 urtekoa da eta erdia baino gehiago ezkondurik dago. 30 urtez beheitiko emakumeen %71,3a ezkondu gabe dago. Emakume guztien hirutik batek etxetik kanpo egiten du lan, gehienak kontratu finkoarekin eta %19,2a behin behineko kontratuarekin. Bortzirietako emakumeen lanpostuen %82,7a zerbitzu pertsonalak, ostalaritza eta komertzio arlokoak dira.

## • IRAKURLEAK MINTZO •

siaz inorreri begira egon gabe, guk geurean jardungo dugula, arduraz.

Hor daude, erraterako, herritarren hizkuntza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak, lan eta etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea... Guzti hauek eta gehiago dira, bizi dugun zapalkuntzaren ondorioz urratzen zaizkigun eskubideak. Oroitarazi, oraindik orain, Lesakako herritarren %20 inguru dagoela udalean ordezkaritzarik gabe. Hau, oinarri oinarrizko eskubidea delarik demokrazia batean. Poliki poliki gai hauei eta bertze hainbati beharko diegu, berandu baino lehen bada hobe. Ez dezagun ahantzi, gure eginbeharra izateaz gain, ezin bertzekoa dugula, Lesakan ematen diren urraketak baitira. Guk konpondu beharrekoak, beraz.

Bukatzeko, gutun honen bitartez besarkadarik beroena bidali nahi nizuke Zaine, hori egiten ere debekatu baitigute. Aupa Zaine, zurekin egon gara, gaude eta egongo gara beti. Bihotz bihotzez eutsi gogor ostia! Gurekin behar zaituztegu eta. Gainerako preso eta iheslariak gogoan, lanari ekin behar lehenbailehen. Aitzakiak alboratu, indarra hartu eta ardura eta ausardiaz aurrera.

**Iban Maia Ormazabal**
**Herria Antzinera**
**Lesaka**

## Bortzirietako iritzi publikoari

Lesakako Oinarrizko Eskualdeko Larrialdi Zerbitzuaren ardura duten medikuak, Osasun Sail honetako zuzendaritzatik Bera eta Lesakako pediatriako kontsulta arruntak atenditzeko behin eta berriro egindako eskaintzak direla medio, honako hau agerian utzi nahi dugu:

1.- Bortzirietan Larraldi zerbitzuaren ardura dugun medikuok, Familiako medikuok eta Medikuntza Orokorrekoak, badugu larrialdietako formakuntza, horretarako kontratatuak izan gara eta hortan egiten dugu lan.

2.- Lesakako LMAEko kide garen moduan, urtean zehar medikuntza orokorrean sortzen diren mediku baimenak eta oporrak egin behar ditugu, hau guzti hau, inongo problemarik gabe betetzen dugu.

3.- Traumatologia kontsulta arrunta traumatologo batek atenditzen duen modura, pediatria kontsulta arrunta pediatra batek atenditu behar duela kontsideratzen dugu, gainera Osasunbiderako lan egiten duten pediatren kontratuetan horrela ageri da.

4.- Izan ditzakegun ezagutzak edo gaitasunez gain, orain arte pediatrian espezialistak ez diren medikuek pediatrian lan egitea guztiz bolondres egin dute, eta lan hau egiteko garaian erantzunkizun pertsonala hartu dute.

5.- Horrexegatik, guri ez dagozkigun espezialista-erantzunkizunak gure gain ez ditugu hartu nahi. Beraz, kontsulta hauek atenditzera ezin zaigula behartu uste dugu.

Jakin badakigu gai honen gainean gizarte sentsibilitate handia dela eta arestian azaldutakoa Bortzirietako biztanleek ulertuko dutela. Gure ustetan, Osasun Saileko zuzendaritza taldeko esfortzu guztiak pediatria kontsultako espezialisten dotazioa handitzera jo behar du, Bortzirietako kasuan lanez gainezka baitago.

**Koldo**
**Morras Aizugarai**
**Sol Freitas Magalhanes**
**Mikeli**
**De la Hoz Aizpuru**

### OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.





## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2005-04-11

*«Leurtzako urtegiak ez digu diru-sarrera handirik ekartzen. Jende aunitz etortzen denean ostatuan eta landa etxeetan somatuko dute, baina bestela ez. Baina hori ez da jendeak urtegiak ezagutzen ez dituelako. 2002an 15.000 pertsona etorri ziren, 2003an 20.000 eta joan den urtean 30.000. Zenbait egunez kopuru izugarrian etorri ziren. Abuztuko egun batean 1.089 pertsona kontatu zituzten».*

Inaxio URROZ
Urrozko alkatea
D.Navarra 2005-04-11

*«Niri asko gustatzen zait lan hau, baina oso astuna ere bada. Nik taldeek egiten duten jarduera berberak egin behar ditut; beraz, egun batzuetan, raftinga dela edo piraguak direla, uretik atera gabe egon behar dut, eta horrek nekatu egiten du! Gainera, orain hasita urria bitarte geratu gabe ibili behar dugu. Eta ardura ere badugu: ez da berdina soka bat gaizki lotzea edo garargardo bat gaizki jartzea!».*

Alfonso IANTZI
Narbarteko Abentura Parkeko monitorea
Matraka 2005-04-13

## • 11 GALDERA LABUR •

**Zenbat urterekin atera zinen Martzeneko-bordatik?**
Hamabirekin Iruñeko Seminariora eta hamaseirekin Bartzelonara nire arreba Jone Mirenen etxera.

**Bartzelonaraino joan eta ez ahal zenuen herriminik izaten?**
Hara joandakoan kontabilitatean espezializatu eta lana biak batera egiten nituen, eta nire nortasuna frontoian aurkitu nuen. Esku pilotan 9-10 urtez jokatu dut afizionatuetan eta palarekin 8 urtez profesionaletan.

**Zein duzu gustukoen eskuzkoa edo palaz?**
Eskuz, pilotan "ama" horixe baita.

**Bartzelonako Nafar Etxeko bazkide ere bazara...**
Bai, bazkide naiz eta kultur aktibitateen presidentea ere izan naiz.

**Zer nolako aktibitateak antolatzen dituzue?**
Euskarazko klaseak eman, txistu eskola eta dantza taldea sortu nituen, euskal jaietan hitzaldiak antolatu (Satrustegi), dantzaldiak (Leitza, Goizueta, Arizkun, Lizarra, Tutera) eta Gastronomia kontuetan Zugarramurdiko zikiro jatea antolatu izan ditut, batzuk aipatzearren.

**Nafarroa Oinez antolatzea falta zaizue...**
Oraindik ez da horrelakorik baina bai Korrika, 1992an Bartzelonako hirian Korrika egin zen testigu eta guzti, eta geroztik, Euskal herrian bezalaxe, bi urtetik korrika egiten dugu.

**Eta Euskal Etxea...**
Sortzaile naiz eta Euskal Etxeko 12. bazkidea.

**Bartzelona edo Arano?**
Bihotza Aranon.

**Odolkia edo butifarra beltza?**
Odolkia noski.

**Txakoliña edo Cava?**
Cava.

**Mendia edo hondartza?**
Biek ditut gustuko... baina eguzki gehiegirik gabe.



**Jabier NARBARTE**
*Aranotik Bartzelonara*

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Jakinarazten dut:

**2005eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:**

## Ordaintzeko era:

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:**

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

## Ordaintzeko epea:

- 2005eko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2005eko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2005eko apirilaren 1ean

Presidentea
Miguel Mª Irigoien Sanzberro

## 2005eko TASAK

### ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

| KONTZEPTUA | EUROAK |
| --- | --- |
| Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez | 64,54 |
| Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak | 54,86 |
| Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak | 45,18 |
| 1. **Merkataritza eta zerbitzuak.** Elikagaien eta etxetresnen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegiak, oindegiak, liburudendak, ileapaindegiak, lan bulegoak | 64,54 |
| 2. **Merkataritza.** Elikagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari dendak), etxetresnen dendak eta farmaziak | 128,62 |
| 3. **Merkataritza.** Autozerbitzuak | 193,12 |
| 1. **Ostatua.** Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²-ko edo gutxiagoko azalera dutenak | 128,62 |
| 2. **Ostatua.** 30m² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda dauzkaten ostatuak | 257,52 |
| 3. **Ostatua.** Pub eta diskotekak | 321,86 |
| 1. **Jatetxea.** Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak; eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak | 321,88 |
| 2. **Jatetxea.** Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak | 579,40 |
| **Landetxeak.** | 129,14 |
| Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak | 109,78 |
| Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak | 90,40 |
| 1. **Hostala.** Hamar logela edo gutxiagokoak | 450,42 |
| 2. **Hostala.** Hamar logela baino gehiagokoak | 643,56 |
| **Merkataritzako saltokiak,** jatetxerik gabekoak | 643,56 |
| **Merkataritzako saltokiak,** jatetxedunak | 965,42 |
| **Lantegiak,** lau langile bitarte | 64,54 |
| **Lantegiak,** 5-10 langile bitarte | 128,62 |
| **Lantegiak,** 11-30 langile bitarte | 321,86 |
| **Lantegiak,** 31-60 langile bitarte | 643,56 |
| **Lantegiak,** 60-150 langile bitarte | 965,42 |
| **Lantegiak,** 150-300 langile bitarte | 1.829,34 |
| **Lantegiak,** 300 langile baino gehiagorekin | 2.896,36 |
| Zuzenean zabortegira botatzea, metro kubiko bakoitzeko | 27,80 |
| Neumatikoak zabortegian uztea, kilo bakoitzeko | 0,25 |

BERTSOLARITZA

# 68 lan aurkeztu dira Bidasoako XVIII. Bertso-Paper Lehiaketara

## Helduetan Gaizka Sarasola lesakarra irabazle

ttipi-ttapa

Bidasoako XVIII. bertso paper lehiaketara 68 lan aurkeztu dira aurten apirilaren 8an egin zen sari banaketa. Epaimahaiak, lanen kalitatea ona azpimarratu du.

Sariei dagokienez, 12 urte arteko A mailan, lehen saria Sunbillako Itsaso Arrietarentzat izan zen, "Aio eskola" bertso sortarengatik. Bigarren saria ere Sunbillara joan zen, Irati Arrietak irabazi baitzuen "Oso luze egin zait negua" bertsoekin. Hirugarren saria Eider Pikabea beratarrarentzat izan zen, "Oporretara goaz" izenburuko bertsoengatik.



Aipamen bereziak ere izan ziren maila honetan: Sukil Etxenike elizondarrak "Erreka garbiketa" lanarekin, Patrizia Etxegarai lesakarrak "Iñauteriak" lanarekin, Julen Errandonea beratarrak "Bertsotan mendian" lanarekin eta Joseba Martinez beratarrak "Kurtso hasierako bertsoak" lanarekin.

12 eta 18 urte arteko B mailan, lehen saria Alazne Untxalo iturendarrarentzat izan zen, "Nondik nora" izeneko bertso sortarengatik. Bigarren saria Dorleta Larque beratarrak eskuratu zuen, "Itxaropen mezu bat bidali dut botila batean itsasora" lanarekin eta hirugarren saria Maialen Belarra doneztebarrak lortu zuen, "Bizitza" bertso-sortarekin. Maila honetan aipamena berezia egin zitzaion Saioa Baleztena beratarraren "Superstizioak" lanari.

18 urtetik goitiko C mailan, azkenik, Gaizka Sarasola lesakarrak lortu zuen lehen saria, "Hiri begira jarri naun eta" lanarekin. Bigarren saria Julen Zelaieta beratarrak lortu zuen, "Zortzi orduko ekaitza" lanarekin eta hirugarren saria Estitxu Arozena lesakarrarentzat izan zen, "Dolores Mitxelena Loiarte" izenburuko bertsoekin.

LANA

# 632 langabetu zeuden martxo hondarrean Doneztebeko bulegoan

ttipi-ttapa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Donezteben duen bulegoan izen emandako langabetu kopurua %4,10 jautsi zen martxoan. Martxoaren hondar egunean 632 langabetu zeuden, otsailean baino 27 guttiago. Beti ere kontuan hartu behar da Aste Santuan tartean zela eta horren eraginez langabezia urtero jausten dela, baina aurten bertze urteetan baino guttiago jautsi da. Gainera, otsailean zeuden 659 langabetuak azken urteetako kopururik handiena izan zen.

Martxoan 363 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 43 bertzerik ez ziren mugagabeak izan. Langabetu kopururik handiena, 25 urtetik goitiko emakumeen artean dago, 321; 25 urtez goitiko 222 gizaseme daude lanik gabe, 25 urtez beheitiko 48 emakume eta adin horretako 41 gizon. Sektoreka, industrian jautsi da gehien bat langabezia, otsailean baino 20 langabetu guttiagorekin, baina halere oraindik 197 langabetu daude. Zerbitzu arloak ditu langabetu gehien, 362, otsailean baino 5 guttiago. Eraikuntzan 41 langabetu daude, otsailean baino 8 guttiago, nekazaritzan 8 eta lehenagotik lanik egin ez duten 24 langabetu daude.




**LABeko ordezkariek elkarretaratzea eginen dute hilabeteko lehen ortziraletan Alkaiagan 13:30etan. Lehenbizikoa apirilaren 8an egin zuten.**

Alzuri
Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak
Tfnoa: 948 630 370
BERA

BIZIKLETA TAILERRA
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kaxkonberri 1, bis · BERA · Tel-Fax: 948 631 318

IGONE liburudenda
Apirilaren 23a LIBURUAREN EGUNA
DESKONTUA %10 APIRILAREN 18tik 26ra
"Gaur egungo literaturaren maisulanak"
1,5 €
Kaxkoberri, 4 • BERA • Tfnoa: 948 630 625

Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela, bainu eta TBrekin
Bera - Nafarroa

BERA

# Haurrentzako Lehen Argazki Rallya eginen da apirilaren 23an

## Berako Suhiltzaile Parkerako bolondresak behar dira

Amaia eta Ainhoa

Ricardo Baroja Eskola Publikoko Guraso Elkarteak Berako Kultur Batzordearen babesarekin apirilaren 23rako Argazki Rallya antolatu du. 6 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako bideratua dago eta hiru kideko taldeek parte hartuko dute. Hirukote bakoitzari argazki kamera utziko zaio eta goizeko 9:30etan hasita hainbat gairekin harremana duten 27 argazki atera beharko ditu talde bakoitzak: udaberria, natura, kirolak, arrantza Bidasoan, Berako txokoak, bertako jendea... Eguerdiko 13:30etan argazki makinak itzuliko dituzte eta handik 6 egunetara talde bakoitzak berak egindako argazkietatik 8 aukeratu eta hoiekin maiatzean Berako Kultur Etxean erakusketa eginen da. Aukeratu ez dituzten argazkiak ere ikusgai izanen dira. Talde guztien artean zozketa ere eginen da.

### Eskola ordutik kanpo Ricardo Barojako ateak itxiko dira

Ricardo Baroja Ikastetxeko haur parkea, frontoia eta gainerako instalazioak eskola ordutik kanpo eta asteburuak barne itxiak egonen dira hemendik aitzinera. Erabaki hau Ricardo Baroja Ikastetxeko Eskola Batzordeak Udaletxearekin batera hartu du, asteburuetan batez ere, instalazioen erabilpen txarra dela medio.

Ia astero patioak eta haur parkea erabat zikin eta hondatuta gelditzeaz gain, zenbait txoko ere pixaz beteak agertzen omen dira. Beraz, erabakia hartzea zaila izan den arren, hemendik aurrera ilunabarrean eta asteburuetan eskolako ateak itxiko dira. Astean zehar eskolatik atera eta iluntu bitartean erabiltzeko aukera izanen da.

### Berako Suhiltzaileen Parkea bolondres bila

Berako Suhiltzaile-Parkeko Zuzendaritza Batzordeak ohar baten bidez jakinarazi duenez, Berako suhiltzaile-parkeak sei bolondres behar ditu.

Aurkeztu nahi duten interesatuek zenbait baldintza bete beharko dituzte: Lehenik Berako suhiltzaile-parkerako adskribatze eskaera egin behar dute. Horretaz gain, ohiko bizilekua Berako udalerrian izan eta adinari dagokionez, 18 eta 40 urte bitartean edukitzea. Bertze bi baldintza ere eskatzen dira: alde batetik suhiltzaile lanak normaltasunez betetzeko oztoporik sortzen duen gaixotasun edo gabezi fisikorik ez izatea eta bertzetik, B motako gidatzeko baimena izatea. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 30ean akautuko da. Deialdiaren oinarriei buruzko xehetasunak jasotzeko edota zalantzaren bat izanez gero telefono hauetara deitzen ahal da: 678 445529 edo 605 754199.



Arttasoka

### Keimadaren Kofradiak Berako Abesbatzako kideak Ohorezko Kofrade izendatu ditu

**Urte askotan Donostiako kofradia eta Berako Abesbatzaren arteko harremana hain ona izateagatik "Enxebre e Pelengrina Cofradia da Queimada no Pais Vasco"k Berako Abesbatza Ohorezko Kofrade izendatzea erabaki zuen. Momentuz Donostiako Galiziako Etxean abesbatzako kide bakoitza bakarka Ohorezko Kofrade izendatu dute baina abenduaren 11n, Keimadaren Kofradiaren XII. Kapitulua ospatzen dutenean, abesbatza bera entitate modura hartuta izendatuko dute. Aipatu Berako Abesbatzak Donostiako Udalean orain arte ospatu diren kapitulu guztietan kantatuz parte hartu duela.**

### Gure Txokoa elkartearen urteko batzarra

Apirilaren 22an, ortziralarekin, eginen du Gure Txokoa elkarteak urteko batzarra, 19:30etan lehenengo deialdian eta 20:00etan bigarrenean. Gai-ordenari dagokionez, lehenik iazko akta irakurri eta, hala badagokio, onartuko da. 2004ko kontu eta ekitaldien balantzea egin ondotik, 2005eko ekitaldiak, aurrekontua eta egitasmoak aztertuko dira. Eskaerak eta galderei ekin aitzinetik, zuzendaritza batzordea berrituko da.







LESAKA

# Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa ireki dute

Lanak apirilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira

Aitor AROTZENA

Udalak 2005eko Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du, Lesakan jaio edo bertan bizi direnentzat. Lanak apirilaren 29ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoan, lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu eta gaia norberak nahi duena izanen da, beti ere zertarako den kontuan hartuz.

Kartelen neurria 50x40 cm.koa izanen da, kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz eta derrigorrez bertan agertu beharko du honako esaldi honek: Lesaka. 2005eko Sanferminak.

Azalen neurria 25x20 cm.koa izanen da, eta marrazkiz edo argazkiz eginak aurkezten ahal dira. Aurkeztutako lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira. Udala jabetuko da lan sarituez eta bertzeak itzuliko dira.

Sariei dagokienez, karteletan lehendabiziko saria 500 eurokoa izanen da. Lesakako Udaleko Kultura Batzordeak osaturiko epaimahaiak erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Azaletan ere, lehen saria 500 eurokoa izanen da eta aitzineko azalean joanen da.

### Kultur Etxea 2008rako egina

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak segurtatu duenez, Lesakako Kultur Etxea hiru urtez eginen da. Lanak 2006. urtean hasiko lirateke eta Kultur Etxearen, auditorioaren eta liburutegiaren ateak 2008an zabalduko lirateke. Horrela jakinarazi zen Nafarroako Parlamentuko alderdi ezberdinek eta udal ordezkariek Iruñean apirilaren 5ean egindako lan bilkuraren ondotik. Nafarroako Gobernuak Kultur Etxearen %50 finantzatuko duela segurtatu zuen. 3,6 milioi euroko aurrekontuaren bertze erdia Udalak ordainduko du.

### Kinto bestak

Apirilaren 23an 1972-73-74an jaiotakoek kinto bazkaria eginen dute Kattun. Apirilaren 30ean lau bazkari izanen dira. 1966-67-68 eta 1982-83-84-85koek. Koxkontan, 1976-77-78koek Kattun eta 1969-70-71koek Irubiden eginen dute otordua.





Argazkiak: Aitor AROTZENA

**Apirileko lehen asteburua bikaina izan zen. Apirilaren 2an Gazte Olinpiadak egin ziren laugarren aldiz eta herriko hamar koadrila ezberdinek hainbat proba gainditu behar izan zituzten, tartean *laranja-dantza*. Apirilaren 3an, Erdi Aroko II. Azokak hainbat bisitari bildu zituen. Tartean, zetreria edo falkoneria erakustaldiak ikusmin berezia piztu zuen.**

BEKO
Lore eta landareak
Fran auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

GOIZ-ALDE

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasolia etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

# Telebisten errepikagailuak Armitx aldetik Akoka aldera mugitu dira

## Erreka aterako balitz, ura ez sartzeko obra egin da Behekolandan

**Joseba eta Nerea**



Argazkia: Josean OLAGARAI

**Azken udatan igerilekuetako sorosleak bilatzeko izan diren arazoak ikusita, ikastaroa egiten ari dira Elizondon. Helburua aurtengo udan igerilekuko begiraleak herritarrak izatea da, eta badirudi bide honetik joaki dela.**

Hurrengo lau urteetan egin nahi diren obren artean daude Uskaitz, Mendiondoko borda eta Juanperoseneko bordako bideak moldatzea. Dirulaguntza dagoeneko eskatua da eta denetara 130.143,78 euroko inbertsioa baloratu da. Bideetan ormigoia botako da eta Nafarroako Gobernuak onartuko balu proiektua, gehienez ere gastuaren %70a bitarte finantzatuko luke.

### *Telebisten errepikagailuak tokiz aldatu dira*

Akoka aldean dagoen ur-depositoko etxolara eraman ziren telebista errepikagailuak apirilaren 7an. Hortaz, orain arte telebista seinalea Armitx aldetik ikusten zuten etxeetan antenak mugitu beharko dituzte eta Akoka aldera begira paratu, Lakain, Gorosurreta, Antsolokueta eta Lurriztiederra auzoetan bertzeak bertze.

### *Larrapileko obra-hondakinen zabortegia itxiko da*

Ingurua garbitu ondotik, gainetik lurra botako zaio eta zerrakura batekin itxiko da jendeak zabor gehiago ez botatzeko. Aldi berean, udalari aspaldixko utzitako lur-eremu hau bere jabeei itzuliko zaie. 12.488,37 euroko inbertsioa ekarriko du obra honek. Bitartean, zabortegi berria egiten hasiak dira Orizki eta Altxata artean, eta 34.000 euro inguruko gostako da.

### *Behekolandan obrak*

CHN erakundeak aginduta, Behekolandan erreka aterako balitz, ura etxeetan ez sartzeko hainbat obra egin dira. Alde batetik Larrapil aldetik jausten diren bi erreka ttikiak (Idoia eta Ttiki) kanalizatu dira eta Tximista errekaren ondoko bideari altuera gehiago emanen zaio. Udalak gestionatu ditu Nafarroako Gobernuaren subentzioak eta eginen diren etxe berrietako jabeek ordainduko dute falta den zatia.

FLASH

### *Karrikako argiak*

Orain dauden argiak duela 23 urte paratu zituzten, 1982an, eta gaur egun eskax izateaz gain, zahartuak gelditu dira. Horregatik, daudenak berritu bidenabar, argi gehiago ere paratuko dira zenbait tokitan. Obra honek 158.931,56 euroko inbertsioa ekarriko luke.

### *Herriko Etxeko ganbaran bulegoak*

Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak toki nahikorik ez dutenez, Herriko Etxeko ganbaran bulego berriak egiteko proiektua aurkeztu du Herri Taldeak. Proiektu horretan sartzen da 160 metro koadroko bulegoak prestatzea eta etxe osoarendako igogailua paratzea.

### *Mendiko bideak*

Mariskineko bordatik Urtsumiatsara eta Perukineneko borda aldeko pistak moldatuko dira. Orain dauden bideei errepaso bat emanen zaie, kunetak garbituz eta bazterreko oteak kenduz. Aldiberean zola leunduko da. Bidenabar, Mariskineko Bordatik Orenbeta aldera joaki den bidean ere lan beratsuak eginen dira.










ARANTZA

# Apirilaren 30ean Goizuetara mendi ibilaldia antolatu du Ekaitza elkarteak

## Herri Kirol Jolasen lehendabiziko kanporaketa herrian egin zen apirilaren 10ean

Nerea ALTZURI

Hilabete honek nahasmena erakutsi du eguraldiari dagokionez. Nahikoa normala dela erran ohi da hori apirilean. Udaberriko giroak, euri erauntsiak eta elurmalutak ere izan ditugu, eta oraindik ere, urtaroa bere onera itzultzeko, edozer emanen du eguraldiak. Eguraldiaren kontra ezin dezakegu deus ere egin baina zenbait ekimen antolatu eta aintzinera eramateko orduan, eguraldiak berebiziko garrantzia du. Heldu den apirilaren 30ean, larunbatean, Goizuetara mendi ibilaldia antolatu du Ekaitza elkarteak. Goizeko zortzietarako herriko plazatik abiatzeko hitzordua jarri dute. Harat ailegatu eta Umore Ona elkartekoek bazkaria prestatua izanen dute, bazkal aintzinetik dutxatzeko aukera ere izanen da. Goizuetako elkartean bazkaldu eta autobusez etxeruntz itzuliko dira.



Argazkia: Edurne ZUBIETA

**Arantzako herri kirol taldeak Nafarroako Herri Kirol Jolasei ekin zion apirilaren 10ean, herrian egindako saioan. Maiatzaren 15a bitarte, beraien dohaiak erakusteko modua izanen dute alebin, haur eta kadete mailako neska-mutikoek.**

Izen-ematea herriko ostatuetan egin behar da, apirilaren 27a, asteazkena bitarte. Izen ematerakoan, hamabortz euro ordaindu behar dira, autobusa eta bazkaria barne direla. Nahi duen guziak parte har dezake mendi ateraldian. Herritarren artean ez ezik, goizuetarrekin hartuemanak gehiago hurbiltzeko aukera paregabea!

### *Herri kirol jolasak*

Apirilaren 10ean, igandean, Nafarroako Herri Kirol Federazioak et Kirol eta Gaztediaren Institutuak antolatutako Herri Kirol Jolasen aurtengo edizioak herriko pilotalekua gune izan zuen, bere lehenbiziko jardunaldian. Eguraldi kaxkarra bazen ere, ikusle eta kirolarik gainezka zegoen frontoia. Herriko kirolariek eta entrenatzaileek ere beuren lana erakutsi zuten lehenengo kanporaketan, haraneko bertze lagunekin eta Iruñerrikoekin batera. Alebin mailako proba konbinatuan, Arantza lehenengo multzoan aritu zen eta sailkapen orokorrean, zortzi talderen artean zazpigarren geratu zen, bere lana sei minutu terdi pasatxoan eginez.

Haur mailako proba konbinatuan, laugarren postua lortu zuten arantzarrek, 8 minutu eta 47 segundu pasatxiko denboran; eta kadete mailako proba konbinatuan, hiru puntu lortu zuen Arantzako taldeak, bigarren postuan geratuz. Sokatiran berriz, Narbarte eta Arantza batera aritu ziren jadete mailan, 540 kilotan eta bi puntu lortu zuen taldeak.

Apirilaren 17an Bemozarren egindako probaren ondotik, 24an Sakana aldean aritzekoak dira herriko kirolariak, maiatzaren 8an Igantzin eta bosgarren eta azken jardunaldia Txantrean eginen da maiatzaren 15ean.







SUNBILLA

# Zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen Ulibeltzak elkarteak otsailaren 25ean

## Lau neska-mutikok lehen jaunartzea egin zuten apirilaren 10ean

**ttipi-ttapa**

Joan den otsailaren 25ean egin zuen Ulibeltzak elkarteak urteko batzarra. Bertzehainbat gairen artean, junta berria aukeratu zen, eta honako hauek osatuko dute: Joxe Mari Hernandorena, Jose Bidal Ibarra, Juanjo Petrirena, Idoia Zugarramurdi, Jose Antonio Errandonea, Jesus Javier Aguirre, Loinaz Gueibentzu eta Angel Mariezkurrenak. Dagoeneko lanean jarriak dira eta zenbait jarduera antolatzen ari dira. Horien artean aipatzekoa da joan den urteaz geroztik Ulibeltzak mendi taldeak astebururan egiten dituen ateraldiak. Igande honetan, apirilaren 24an Aiako Harrira eginen du ateraldia eta hara joan nahi duenak Itturburu ostatuan elkartuko dira goizeko 7etan.



Argazkia: Josean OLAGARAI

**Apirilaren 10ean lehen jaunartzea egin zuten Janire Apeztegia, Andoni Espelosin, Amaia Goñi eta Maite Aranbillet-ek. Orain, Corpus Cristie egunean berriz ere aterako dira bere jantziekin.**

Aktibitate berri ere estreinatuko dute aurten: ateraldiak bizikletaz. Lehenbizikoa apirilaren 23an eginen dute, eta honako ibilbidea egiteko aukera izanen da: Sunbilla, Basakabi, Sunbilla. Irteera goizeko 8:30etan Fonda ostatutik. Datorren astean bertze ibilbide bat egiteko aukera izanen dute: Sunbilla, Lizuniaga, Lizarieta, Etxalar, Sunbilla. Ateraldi hau egin nahi duten guztiek, aitzineko asteburuan bezalaxe, Itturburu ostatuan elkartuko dira goizeko 8:30etan. Igande goizak ederki pasatzeko aukera paregabea, beraz.















DONEZTEBE

# Musika-soinuak murrizteko tresna jartzea agindu die Herriko Etxeak ostatuei

## Jose Mari Satrustegiri buruzko erakusketa zabalik da apirilaren 28a arte

ttipi-ttapa

Navarra de Medio Ambiente Industrial (NAMAINSA) enpresak herriko ostatuak bisitatu ondotik egindako txostenean oinarrituta, Doneztebeko udalak musika aparatuak 75 dezibeliotara mugatzeko tresna jartzea eskatu die herriko ostatuei. Horretaz gain, ostatu barnean sortzen ahal diren soinuak legeak agintzen duenera mugatzea ere eskatu die. Tresna mugatzaile hauek jarri ondotik, ostatuetako jabeek hamabortz eguneko epea izanen dute, instalazioa egin duen teknikoaren ziurtagiria aurkezteko.



ZUBIETA

**Azken partida arte borrokatu behar izan du Errekako talde nagusiak bigarren maila nazionalari eusteko. Azken partida nahitaez irabazi behar zuten Boscosen kontra eta horixe egin zuten, 22-15. Orain Kopa txapelketari ekin diote. Jubenilek seigarren postuan akitu dute liga. Hagitz emaitza ona Juan Telletxea eta Txomin Mindegiaren mutilentzat, gehienak lehendabiziko urtekoak baitira.**

Bertze aldetik, Kaxerna ostatuaren inguruan bizi den bizilagun batek Nafarroako Arartekoari egindako salaketaren inguruan ere aritu ziren udal batzarrean, arartekoaren beraren eskutitza jaso baita. Ostatu hau eta bizilagunaren etxea bisitatu zuten NAMAINSAko teknikariek. Bere txostenak dioenez, ostatu honek ez du soinu isolatzaile egokirik eta etxebizitzan 37,1 dezibelioko soinuak neurtu ditu foruzaingoak, gehieneko muga baino 7,1 dezibelio gehiago. Udalak hiru hilabeteko epea eman dio Kaxerna ostatuari arazo hauek moldatzeko.

### *Jose Mari Satrutegi zenari buruzko erakusketa*

Malerrekako Mankomunitateak Doneztebeko Udalaren laguntzaz antolatuta, Jesus Mari Satrustegi zenari buruzko erakusketa zabalik izanen da apirilaren 18tik 28ra Doneztebeko udaleko erakusketa aretoan, liburutegiaren gibeleko aldean. Goizez institutuko ikasleendako irekiko da eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara irekia egonen da interesatu guzientzat. Jose Mari Arruazu Sakanan jaio zen, Arruazun, eta berrogei urtez Euskaltzaindiako kide izan zen.

### *Parrokia karrikan moldaketak*

Parrokia karrikan, elizaren ondoan egin beharreko moldaketa lanei buruzko eztabaida izan zen azken udal batzarrean. Mariezkurrena enpresa lanak egiteko prest dago, baina aurrekontuirik aurkeztu gabe. Alkateak horrela lanak ematea ez dela posible jakinarazi zuen. Azkenean, PNVko Zugarramurdiren eskariarekin bat eginez, hasierako proiektua egin zuen arkitektuak aurrekontua prestatzea erabaki zen, alkateak eta Eusko Alkartasunako zinegotzi batek lan hori udal arkitektuek egitea nahiago zuten arren.






BERTIZ

# Pasa den martxoa azken hamabi urteotan sute gehieneko hilabetea

## Handiena Erratzuko Auza mendian izan zen martxoaren 18an

ttipi-ttapa

2005eko martxoa izan da azkeneko hamabi hilabeteetan, 1994tik honat, Nafarroan sute gehien izan dituen hilabetea, guzira 310 izan baitziren. Urtarrileko 36 suteekin eta otsaileko 66ekin batera, guzira 412 izan dira neguko sasoi honetan. Horrela jakinarazi zen apirilaren 8an, Oihan Suteen kontrako Borroka Batzordeak, suteen prebentzio taldeei buruzko lan-jardunaldiaren barnean Bertizen egindako *prentsaurrekoan*.



ZUBIETA

**Neguko suteen inguruko datuak eman ziren Bertizko prentsaurrekoan.**

Nafarroa osoan martxoan 310 sute izan badira, gehienak ttipi-ttapak hartzen duen eskualdean izan dira. Oronozko suhiltzaile parkeak 80 ateraldi izan baititu matxoan. Suterik handiena Erratzuko Auza mendian izan zen martxoaren 18an, 70 hektarea erre baitziren. Otsailean 7 ateraldi bakarrik egin zituzten Oronozko suhiltzaileek eta urtarrilean 6.

Prentsaurrekoan jakinarazi zenez, Espainiako Ingurumen Ministeritzak, Oihan Suteen aurkako Prebentzio Integralerako taldeak sortu zituen, larreak hobetzeko sua baimenarekin egiten dutenei laguntzeko eta erakusteko. Espainia osoan gisa honetako sei talde daude eta Nafarroan dagoen bakarra Baztanen dago, 2002ko udazkenetik lanean ari dena.

## Filme laburren zinemaldirako kartel lehiaketa deitu du Partzuergo Turistikoak

Bertizko Partzuergo Turistikoak, Hendaiako Udalaren laguntzaz, Bidasoako filme laburren zortzigarren zinemaldia iragarriko duen kartelaren hautaketarako lehiakota doialdia egin du. Lanak maiatzaren 13ko eguerdiko 12ak baino lehen aurkeztu beharko dira ohiko sistema erabiliz helbide honetan: Bertizko Turismo Partzuergoa, Landa Turismo Zentroa; 31720 Oieregi.

Kartel guzietan ondoko testua agertu beharko da: *VIII Certamen Internacional de cortometrajes del País del Bidasoa, Bidasoako filme laburren VIII zinemaldia: VIII Festival International de courts-métrages Bidasoa*

*Del 22 de Agosto al 2 de Septiembre/ 2005 Abuztuaren 22tik irailaren 2ra/ Du 22 août au 2 septembre 2005, Bera, Doneztebe, Elizondo, Hendaia.*

Kartelaren neurriak 50x40 cm.koak izanen dira gehienez eta kartelak egiteko edozein teknika erabil daiteke.

Lehen saria 400 eurokoa izanen da. Kartel sarituaren egileak Bertizko Partzuergoaren esku utziko ditu kartelaren erreprodukzio eskubideak. Gainerako lanak urrian itzuliko dira.

ArkiLanak SL
ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa
Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta: arantxaci@terra.es
Santiago, 55 ELIZONDO
ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
URBANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONTSULTAK
LUR NEURKETAK

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

KULTURA

# Udaberriko Birako ekitaldiak eskualdeko hainbat herritan datozen asteotan

## Antzerkia, zinea, dantza eta musika ekarriko dute

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko Vianako Printzea Erakundeak Udaberriko Bira antolatu du bertze urte batez, 200 eta 1.000 biztanle arteko udal eta kontzejuen laguntzarekin. Udaberriko Biraren xedea, herri hauetara antzerki, musika, zine eta folklore emanaldiez osatutako programa eramatea da.

Egitarau zabalaren tartean, ttipi-ttapak hartzen duen eskualdean ere zenbait emanaldi izanen dira. Lehendabizikoa Igantziko Baratzondo Zahar Etxean izanen da apirilaren 30ean, 21:30etan, antzerki emanaldia izanen da, Cuenta Clásicos taldeak Tormeseko Lazarilloa antzezlana eskainiko baitu.

Maiatzaren 8an, Sunbillan, Ereintza abesbatzaren emanaldia izanen da 11etan elizan.

Maiatzaren 15ean, Narbarteko Plazan, La Banda taldearen *La banda* antzezlana ikusgai izanen da eguerdiko 12etatik aitzinera.

Maiatzaren 22an eskualdeko bi herrietan antzerkiaz gozatzeko modua izanen dute. Donamarian, Panta Rhei producciones taldearen Txaribari lana euskaraz ikusteko modua izanen da frontoian, 17:30etan. Urdazubin, berriz, La Banda taldearen *La Banda* emankizuna izanen da frontoian 12:30etan.

Maiatzaren 28an, Beintza-Labaiengo elizako arkupean, zine emanaldia izanen da 20:30etan. «Doraemon eta maien inperioa» haurrendako filmea izanen da ikusgai.

Ekainaren 4an, Arantzan, Muthiko Alaiak fanfarrearen doinuak zabalduko dira plaza inguruan 20:30etan. Egun berean, Zugarramurdiko Akelarrenean, Panta Rhei Producciones taldearen «Txaribari» euskarazko antzezlana ikusgai izanen da, 18:30etatik aitzinera.

Ekainaren 11n, Duguna fanfarrearen emanaldia izanen da Zubietako estalpean, 17:30etan hasita eta Udaberriko Birak eskualdean dituen emanaldiekin akautzeko, ekainaren 18an, Aresoko plazan, La Banda taldearen *La Banda* antzerki emanaldia ikusgai izanen da 19:30etatik aitzinera.



Udaberriko Bira iragartzen duen kartela.


SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN


ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Beroau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ola
SAGARDOTEGIA
☛ 250 lagun eserita
☛ Klimatizatua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130


Zeure uda
Teknia Corporaen
hasten da
Teknia
CORPORAE
Tel.: 943 660 150
10 Gorputz sesioko bonoarekin, aurpegi tratamendu
pertsonalizatua opari
5 Aurpegi sesioko bonoarekin, gorputz tratamendua opari
(Promozio hauek trukagarri dira antzeko ezaugarriak
dituzten zerbitzuekin)
IRUNGO BIHOTZEAN.
Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZen ondoan) · 20302 · Irun · info@tekniacm.com

MALERREKA

# Leurtzako beheitiko urtegian elbarriendako ibilbidea eginen da

## Ingurumen kontseilaria Urrotz eta Beintza-Labaiengo alkateekin bildu zen

ttipi-ttapa

Jose Andres Burgete, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuko kontseilariak Leurtzako urtegia bisitatu zuen apirilaren 12an, urtegi honetako natur eta jolas eremuko mantenimendurako Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalekin duen hitzarmena berritzeko. Izan ere, 1986an sinatu zen hitzarmen hau hogei urterako eta, beraz, 2006an akituko da. Ingurumen kontseilaria Inaxio Urroz eta Francisco Javier Otxandorena, Urrotz eta Beintza-Labaiengo alkateekin eta Martin Lazkano eta Angel Elizondo zinegotziekin bildu zen, eta urtegi ingurua kudeatzen duen Orbela enpresako Mikel Albisurekin batera, Leurtza bisitatu zuten. Jose Andres Burgetek jakinarazi zuenez, aurten 57.750 euro inbertituko dira Leurtzan, zenbait lan egiteko. Zehazki, dirutza horren %44,67a, PR-102 ibilbidea Beintzarekin lotzeko erabiliko da, baita elbarriendako aparkalekua eta komuna eraiki eta ezintasunak dituzten pertsonentzako ibilbidea moldatzeko beheitiko urtegian. Hitzarmena sinatzeaz gain, eremu eder hau bulegoetatik urrun ezagutzeko aukera probestu zuen kontseilariak. Bestalde, beti bezala Urrotz eta Beintza-Labaiengo udalen artean Leurtzako zainketa eta mantenimendu lanak banatuko dituzte. Orbelako Mikel Albisuk jakinarazi zuenez, inguruan dauden ikatz txondorrak berreskuratzeko asmoa ere badute.





ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

**Gaineko argazkian, Burgete kontseilaria Beintza-Labaien eta Urrozko alkateen artean. Behean, urtegi inguruan Mikel Albisuren azalpenak jasotzen.**

### NATUR EREMUA 1987TIK

Leurtzako urtegia natur eta jolas eremua izendatu zuten 1987an, bere balore ekologikoengatik. Bisitari kopurua aunitz igo da, batez ere azken urteotan. 2002. urtean 15.000 bisitari izan zituen, 2003an 20.000 eta joan den urtean 30.000 lagun kontatu ziren. Joan den urteko abuztuko egun batean mila bisitari baino gehiago izan ziren Leurtzan.

# Oinatz Asensio izanen da Ituren eta Zubietako albinte berria

Arkaitz MINDEGIA

Ituren eta Zubietako Herriko Etxeetan 35 urtez albinte lana bete ondotik, joan den urtean erretiratu zen Fermin Santesteban Otxandorena. Berak utzitako lana beteko du orain Oinatz Asensio zubietarrak. Lanpostu hori lortzeko proba batzuk egin ziren eta jende aunitz aurkeztu zen. Martxoaren 16an teoria proba eta praktikak egin ziren eta martxoaren 24an proba psikoteknikoak. Batean zein bertzean pilatutako puntuazioak begiratu ondotik, lanpostua Oinatz Asensiok beteko duela erabaki dute Ituren eta Zubietako Udalek.

### *Aurtizko gas-hornidura*

Aurtizen gas-hornidura sarea jartzeko proiektua aurrera doa. Sainz de los Terreros arkitektuarekin Aurtizko elkartean egindako bileran, gas instalazioa egin nahi duen etxe bakoitzean bete beharreko orri bat banatu zen. Gas instalazioa hau egiteko, gutxienez hamabortz kontadore behar izanen direla jakinarazi du instalazio lanak eginen dituen enpresak.

ONDAREA

# Partikularren esku dauden etxe historikoak moldatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak eman du

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak partikularren esku dauden 23 eraikin historiko-artistiko zaharberritzeko eta kontserbatzeko proiektuendako 203.524 euroko dirulaguntza eman du. Zaharberritze proiektu hauek Ondare Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratzen ditu eta berak zehazten ditu eraikitzerakoan segitu beharreko irizpideak eta lanak egiterakoan erabili beharreko materiala. Dirulaguntzak, proiektuaren aurrekontuaren %15 eta %30 artekoak dira eta tartean, eskualdeko zenbait etxe moldatzeko laguntzak daude.



Argazkia: Arthur AROTZENA

**Etxalarko Iñarrea moldatzeko 102.572 euroko proiektua aurkeztu da. Nafarroako Gobernuak %20a, 20.514 euro, ordainduko du.**

Honela, Oieregiko Erreparazea Jauregiko Jabeen komunitateak 2.076 euro jasoko ditu, hau da, 6.920 euroko aurrekontua duten moldaketa lanen %30a.

Etxalarko Mª Angeles Etxeberriak 20.514 euroko dirulaguntza jasoko du Iñarrea etxea zaharberritzeko. Lanen aurrekontua 102.572 eurokoa denez, %20 estaliko du laguntzarekin.

Eduardo Martin Gonzalezek 3.235 euro jasoko ditu, Erratzuko Iñarbilgo Zozaia jauregia moldatzeko 12.941 euroko aurrekontuaren %20a.

Arizkungo Gamixarrea etxea moldatzeko 7.084 euro hartuko ditu Jo ala Jo Kultur Elkarteak, 35.424 euroko aurrekontuaren %20a.

Zugarramurdin, azkenik, Josefa Beola Sagarzazuk 7.652 euroko dirulaguntza hartuko du, Etxorgaraia moldatzeko aurkeztutako 51.016 euroko aurrekontuaren %15a.

ELKARTASUNA

## Zilarrezko domina jaso dute 19 odol emailek

ttipi-ttapa

Apirilaren 10ean egin zen Berako odol-emaileen besta. Goizeko 11etan meza izan zuten eta gero hameketakoa Gure Txokoa elkartean. Hameketakoaren ondotik, zilarrezko domina eskaini zitzaien hogeita bortz aldiz odola eman duten emaileei. Berako Simon Ariztiak, Jesus Elriok, Tomas Fagoagak, Francisco Javier Garciak, Jose Angel Goienetxek, Pedro Irazokik, Maria Esther Iñargak, Jose Luis Lasartek, Jose Olveirak, Saturnino Pikabeak, Jose Ignacio Prietok, Antonio Rodriguezek, Javier Romanok, Kontxi Sanzek eta Julian Mendegiak; Etxalarko Jose Joaquin Zelaietak, Juan Angel Bertizek eta Jose Mari Santestebanek eta Irunen bizi den Felix Azpillagak jaso dute odol-emaileen zilarrezko domina.

ARANO

# Kontzejuko taberna errentan eman nahi du berriz ere Udalak

Kontxi KLABER

Kontzejuko taberna alokatzeko interesa daukan guztiak udaletxearekin harremanetan jarri behar du 948 514045 telefono zenbakira deituz, bertan hitzordua adostuko dute apirilaren 26tik maiatzaren 12ra goizeko 9etatik 13etara informazio guztia eskura dezaten.

### *Babeserako hesiak Suron*

Arrisku handia ikusten genuen Suroarrok, errepidean batere babesik gabe ibiltzen ginen. Nahiz eta azkenean ohitu egiten zaren, arriskua hor dago. Orain udalak 9.500 euro gastatu ditu 388 metro luzeran eta lau zatitan babeserako hesiak jartzen.



Argazkia: Kontxi

**388 metroko luzeran babeserako hesiak jartzeko 9.500 gastatu ditu Udalak.**

LEITZA

# «Liburu bat egiten» erakusketa zabalik da egunotan Udaletxean

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea buruz buruko txapelketatik kanpo

ttipi-ttapa

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak antolatuta, Pamiela argitaletxeak prestatutako «Liburu bat egiten» erakusketa ikusgai dago udaletxeko batzar aretoan apirilaren 18, 19, 20 eta 21ean. Goizetan Institutuko ikasleak pasatuko dira erakusketa ikustera, hamar talde guzira eta 18:30etatik 20:30etara ikusi nahi duen guziarentzat zabalik dago. Liburu bat egiteko prozesua xehetasun guztiekin eta modu erraz batean azaldu nahi da erakusketa honetan, hasi norbaitek liburua idazten duenetik eta irakurleen eskuertara ailegatzen den arte. Erakusketak 25 hormirudi ditu eta horretaz gainera, hainbat materialetak laginak ere erakutsiko dira. Autore askoren jatorrizko zuzenketak eta liburuak ilustratzeko erabili diren jatorrizko marrazkiak ere ikusgai izanen dira.



Artxiboa

**Zoritxarrez aurten ez dugu horrelako titularrik ikusiko. Abel Barriola txapelketatik kanpo utzi dute lesio baten ondorioz eta Oinatz Bengoetxeak lehenbiziko partida galdu egin zuen Lasa III.aren kontra.**

### *Barriola txapelketatik kanpo*

Abel Barriola eskuz banakako Txapelketatik kanpo utzi dute. Orkatilan min hartu eta jokatzeko moduan ez zegoela argudiatuta, joan den ostiralean Gonzalezen kontra jokatzekoa zen partida atzeratzea eskatu zioten EPELi leitzarrak berak eta Aspe enpresak. EPELeko epaileak ez du atzerapena onartu, eta partida bertan behera geratu da. Horrenbestez, Gonzalezi partida irabazitzat eman dioten. Aurtengo Buruz Buruko Pilota Txapelketan finala ez zen beste partidarik ez zela atzeratuko finkatu zuen EPELek arautegian. Halere, Aspe pilota enpresa saiatu da atzerapena lortzen, Abel Barriola ez zegoelako partida jokatzeko moduan. Oinatz Bengoetxeak Lasaren kontra galdu zuela kontuan hartuz, ordezkaririk gabe gelditu gara.



PERTSONAIA

Jon REKONDO

## Gazte mailan irabazle Urrezko Aizkolariak txapelketan

Jon Rekondo aizkolari leitzarrak irabazi zuen 20 urtez beherako Urrezko Aizkolarien txapela, apirilaren 10ean Zumaian jokatutako finalean oso erraz menderatu baitzuen Mugertza II.a mutrikuarra. Lau kana-erdiko eta bi 45 ontzako moztu behar zituzten. Leitzarrak lehen enborretik erakutsi zuen bere nagusitasuna eta lan erditarako minutu eta 15 segunduko abantaila zuen Rekondok. Hortik aurrera, aldean eutsi ez ezik handitu ere egin zuen eta 14 minutu eta 18 segundutan bukatu zituen lanak. Mugertzak 2 minutu eta 16 segundu gehiago behar izan zituen.







BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 • IRURITA

## GOIZUETA

# Herriko suhiltzaile taldeak hemeretzi bolondres berri izanen ditu



Hemeretzi suhiltzaile berrik oastuko dute herriko suhiltzaile bolondresen parkea.

**Esteban AROTZENA**

Harritzeko moduko erantzuna eman zaio suhiltzaile taldea haunditzeko orain dela aste batzuk egindako deialdiari. Arazo pertsonalak medio, hiruzpalau bolondres taldea utzi beharrean gertatu dira azken urte hauetan. Arrazoi honengatik egin zitzaien herritarrei deia, eta baita ederki aski erantzun ere. 19 lagunek eman baitute izena bolondres moduan suhiltzaile izateko. Orain 50 orduko ikastaroa egin beharko dute.

Gai honekin jarraituz esan behar da, goizuetarren borondateak merezi hainbesteko eskuzabaltasunik ez duela agertzen Nafarroako Gobernuak suhiltzaile taldearekin. Parkea handitzeko hitzarmena sinatu zuten Goizuetak eta Gobernuak orain dela lau urte. Herriak lurra emanen zuen eta Nafarroako Gobernuak 2004an proiektua eginen zuen eta 2005ean obra. UPNren gobernuak ez du esandakoa beteko, eta 200.000 eurotik goitiko proiektuaren heren bat bakarrik ordainduko duela dio orain. Honen aurrean eman beharreko pausoak aztertzen ari omen dira orain udala eta suhiltzaileen taldea.

### *Dantza taldea birsortu nahi du kultur taldeak*

Herritar gehienak oroituko diren bezala, orain dela zortzi-hamar urte 50 gaztetxotik goitiko dantza taldea zuen Umore Ona elkarteak. Hainbat arazoren ondorioz, bere garaian desagertu egin zen, baina orain, kultur taldea birsortu nahian dabil. Umore Onarekin, Udalarekin eta Guraso Elkartearekin harremanean jartzeko asmoa azaldu dute sustatzaileek. Helburua: hurrengo Amabirjin egunean Umore Ona dantza taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera edukitzea herritar guztiek.



## ARESO

# Herri inguruan mendi itzuli polita egiteko modua bada



Okabioko maldetatik ateratako irudia.

**Juana Mari SAIZAR**

Gure herria hobeki ezagutzeko, seguruenik gutxitan egin duzuen ibilbidea azalduko dugu.

Patxikuenea parean errepidea utzi eta eskuin aldera, autobidaren azpitik Larrekoborda aldera, abiatu beahr da. Ezker alde hartu eta 675 metrora dagoen Urtezahar leporaino joan behar da. Eskuinera jo eta mugaz muga segitu Hiru Pagoetaraino (845 metro). Handik Soromugarrieta eta Axusteko leporaino, eta hortik azkeneko gailurra joko dugu. Altxaño edo Guratz gaina (956 metro). Hemen Gorriti Leitza eta Aresoko mugarria dago, baita buzoi ttiki bat ere. Hemendik goitik beherako ibilaldia hasten da eta kontuz ibili behar da hainbat bide baitaude, eta okerra hartuz gero, bertze edozein herritan azaldu daiteke.

Gaiñarbeko mendi aldera joko dugu, eskuin aldera abiatuz, eta pista alde batera utziz, Astomela erreka segituz herrira allegatuko gara bueltan.

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Hemeretzi lagunek auzolanean plaka ezarri dute Atxuriako kaxkoan

## Zugarramurdiko Herriko Etxeak eta Atxuria mendi taldeak antolatutako ekitaldian



**Margari eta Koro**

Zugarramurdiko Herriko Etxeak eta "Atxuria" mendi taldeak antolatuta martxoaren 20an auzolana egin zen Atxuriako kaskoan. Aire gaixto batek jo eta botaia zuen egitura ezin zen moldatu, beraz, handik kendu zuten, bazterrak txukundu eta bere ordez plaka txiki bat jarri zuten.

Eguraldi ederra lagun izan zuten eta 19 lagun bildu ziren. Hala ere, ez zen lan errexa izan, bainan finitu ondotik ongi merezitako gosaria hartu zuten. Herriko Etxeak konbidaturik, horrela indar-berriturik malda beheiti itzulera hartu zuten. Aperitifa tenorerakoz denak herriko plazan zeuden.

### Elizako ezkila moldatzen

Zugarramurdiko elizako ezkil haundiari moldaketa batzuk egin behar dizkiote, eta horren ondorioz aste batzutan ez da erabiliko. Beraz, mezara joateko ematen diren dandak ixilik egonen dire, eta puntual ailegatzeko etxeko erlojuaz gidatu beharko duzue.

### Farmazia Dantxarinean

Hilabete hunen 18tik aintzina farmazia bertze toki batean daukagu. Orain arte Landibar auzoan zegoena orain Dantxarineko "Josenea" etxean jarri dute (lehen "Castro" benta zena). Ordutegia ez da aldatu, hauxe da: 10:00etatik 14:00etara, 15:30tatik 18:00etara.



Argazkiak: Koro

**Kaxkoan zegoen egitura kendu, bazterrak txukundu eta plaka txiki bat ezarri zuten.**













# egitaraua

apirilak 22 ostirala

"POTTOKA"

00:00

apirilak 23 larunbata

KONTRAKALEA

EKINTZA

23:00 10€ + kontsumizioa

apirilak 29 ostirala

"LOS MOÑAS"

00:00

apirilak 30 larunbata

urgabe

00:00 8€ + kontsumizioa

Cuba

ZOZKETA

Bi pertsonendako Kubarako bidaia

Txartelak apirilako sarrerakin batera banatuko dira.

Zozketa apirilaren 30an egingo da.

eta maiatzan...

maiatzak 21 larunbata

KOMA + eko4

Lur diskoteka

2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€+kontsumizioa | Ostiralero sarrera dohainik

Elizondo (Nafarroa)

www.lurelizondo.com

BAZTAN

# «Kapitalismoak hilko gaitu» jardunaldiak Elizondoko Gaztetxean

## Lekarozko kolegioaren aferan «transparentzia» falta dela dio

ttipi-ttapa

Elizondoko Gaztetxea egitarau zabala gauzatzen ari da apirilean. Zine emanaldiekin batera, apirilaren 15ean, Gorka Otondo elizondarraren eskutik, «India piraguatik begiratuta» diapositiba emanaldia eskaini zen. Apirilaren 16an Gaztetxeko batzarra egin zen.

Aitzinera begira, apirilaren 21ean, ortzegunetako zine emanaldiekin segituko dute, Undergraund filmea eskainiko baitute 21:00etan. Apirilaren 28an, "Juan Sin nadie" filmea eskainiko dute ordu berean.

Apirilaren 29an, ortziralearekin, 20:30etan, "Kapitalismoak hilko gaitu" izenburua daraman solasaldia eskainiko da.

Apirilaren 30ean, larunbata, 21:00etan kontzertua emanen dute Ufestuek eta Mundo Matadero taldeek.

Azkeneko hiru ekitaldi hauek, hau da, filme emanaldia, solasaldia eta kontzertua, maiatzaren 1a dela eta "Kapitalismoak hilko gaitu" lemarekin antolatutako jardunaldien barnean daude. Antolatzaileek gogorarazi nahi dute gaztetxea denen etxea dela eta gazteak animatu nahi dituzte batzarre eta ekitaldietan parte hartzera.



ARGAZKIA: Xabi BALLARENA

**Argazkian ageri den Ufestuek taldeak, Mundo Mataderorekin batera kontzertua eskainiko du jardunaldiak akitzeko.**

### 11,9 milioi euroko udal aurrekontua lantzen ari da Balleko Etxea

Baztango Udala 11,9 milioi euroko diru sarrera eta irteerak izanen dituen udal aurrekontu batean ari da lanean aurten, gan den urtean baino 1,55 milioi gutiago. Apirilean bertan aurkeztuko omen da udal batzarrean. Inbertsioetan 7.075.950 euro gastatuko dira. Almandozen hirigintza lanak egiteko 224.000 euro erabiliko dira eta Bidegorrieta baserrira argindarra eramateko 107.500 euro, errate baterako.







FLASH

### Erraldoiak dantzatzeko ikastaroa

Jo ala jo kultur elkarteak eta Elizondoko Gaztetxeak antolatuta, erraldoiak dantzatzeko ikastaroa eginen da Elizondon. Izena emateko epea apirilaren 25ean akituko da 659 119904 telefonoan.

### Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (ITV) Oronoz-Mugairin

Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Komertzio eta Lan Departamentua Oronoz-Mugairin Ibilgailuen Azterketa Teknikorako (ITV) estazio bat jartzea aztertzen ari da. Jarriko balitz, 2008rako lanean hasiko litzateke. Bigarren alternatiba gisara, Baztan-Bidasoako estazioa Donezteben jartzea ere aztertzen ari omen dira.

### Megalitoei buruzko komikia eta liburua argitaratu dira

Begoña Durruty arizkundarrak idatzi eta marraztutako «Egun pasa aitetxi Ferminekin» izeneko komikia argitaratu du Jorge Oteiza museoak. 2.000 ale inprimatu dira eta ikastetxeetan banatzeaz gain, 2 eurotan salgai jarriko dira dendetan. Bertze aldetik, Josu Cabodevilla eta Itziar Zabalzak azken 12 urteetan egindako monumentu megalitikoen katalogazio lanak ere argia ikusi du Baztango Megalitoen Arkeologia Kartarekin. Hiru liburutan banatuta, Baztango 594 trikuharri, harrespil eta bertze megalitoei buruzko azalpenak ageri dira.

BAZTAN

# Alkaterik gabe segitzen dute Oronoz-Mugairin

## Hirugarren saiakeran ere ez da hautagairik agertu

**ttipi-ttapa**

Oronoz-Mugairin alkaterik gabe segitzen dute, egin diren hiru batzarretan kargu hori hartzeko hautagairik ez baita aurkeztu. Abenduaren 19an eta urtarrilaren 10ean egindakoen ondotik, azkeneko batzarra apirilaren 3an egin zen eta bertan izan ziren azkeneko alkatea, Maria Elena Zabaleta baita Balleko Udaleko ordezkariak ere, Virginia Aleman alkatea eta Florentino Goñi eta Santi Aldako zinegotziak, hain zuzen. Alkate izateko inor aurkeztu ez zenez, batzarrean izan ziren 30 bat herritarrek hiru batzorde izendatu zituzten, ur-zerbitzua, hilerria eta frontoia kudeatzeko. Hilerriko batzorderako Jesus Maria Jauregi eta Gabriel Salaberri izendatu zituzten; ur-zerbitzua kudeatzeko Manex Aizpuru eta Juan Miguel Eraso eta frontoia administratzeko Melo Berho.

### Baztango Eguna Mexikon maiatzaren 1ean

Mexikon bizi diren etorkin baztandarren bigarren aldiz Baztango Eguna antolatu dute maiatzaren 1erako. Gan den urtean izugarrizko arrakasta izan zuten eta 150 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte Mexikoko hiriburuko Euskal Etxean egindako ospakizunean. Aurten ere leku bera aukeratu dute bestarako.

Besta honek, berez arizkundarrak diren Zugarramurdi Iribarren familiakoek urtero La Vasconia okindegian egiten zuten bilkura eta baztanian du sorburua. Garrantzitsuena biltzea zen eta Isabel Iribarreneri gogoratu zitzaion besta baztandar guztiendako zabaltzen ahal zela. Bere seme-alabei aipatu eta Miren Agirre eta Jaione Arrieta, Euskal Etxeko presidente eta presidente ordearen laguntzarekin, antolatu ere egin zuten. Orduan baztanzopak, txuritabeltz, piperrada haragiarekin eta aretze-azpizuna izan zuten bazkaltzeko. Aurtengo bestaren egitaraua ez dute zehaztu oraindik, baina joan den urtekoa gainditzen saiatuko dira, doike.



Artxiboa: ONDIKOL

***Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartela Totu Iturzaeta elizondarrak egin du***

**Aurtengo Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartela Totu Iturzaeta Barnó elizondarrak egina da. Laugarren aldia da Totuk lehiaketa irabazten duela, 1999, 2000 eta 2003ko edizioetan ere bera izan baitzen garaile. «Tarrapataka» izenburua jarri dio bere lanari, «ongi pentsatua baldin bazen ere, azken orduan egin nuelakoz». Bi aipamen ere egin ditu aurten lehiaketako epaimahaiak, Juan Angel Perotxena eta Alfredo Leonen lanentzat.**

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ-MUGAIRI
· Jaki tipikoak
· Etxeko giroa

ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA,...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etxebarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 - Elizondo


OÑASKA
ERRETEGIA


ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
ARIZKUN

SENPERE

# Silveiro Pessoa, Kepa Junkera, Kauta eta Berritxarrak entzunen dira Herri Urratsen

## Herriko etxeak ezin du mugimendu departamenduzalea lagundu

Franck DOLOSOR

Musika eta kantuak nagusituko dira aintziran maiatzaren 8an Herri Urratseko hogoita bigarren edizioan. Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko bestan animazio andana eginen da sei gunetan eta usaiako haurren txokoan. Herri kirolez eta euskal dantzez gain, beti bezala musikari ainitz hurbilduko da aintzirarat. Afrika, Silverio Pessoa, Perruketak, Sagarroi, Elephant Man, Kauta edo Maider Zigarroa bezalako kantariak eta taldeak entzuten ahalko dira egun osoan. Oreka zirko eskolak, Patxi eta Batbiru taldeak eta bertsolariek ere parte hartuko dute ikastolen bestan.



Argazkia: Studio de la Nivelle

**Gaztetxoek ere parte hartu ahal izan dute Martin Borthaire rugby txapelketan.**





**Kauta musika taldea eta Silverio Pessoa kantaria.**

### *Euskal Departamenduari dirulaguntzarik ez*

Ipar Euskal Herriko herriko etxeek, hauen artean Senperekoak, ezin izanen diote dirulaguntzarik eman Euskal Departamenduaren aldeko hautetsien elkarteari. Paueko auzitegi administratiboak zentzu huntan hartu diren deliberazioak anulatu ditu. Jadanik eman diren laguntzak kentzea agindu dute Paueko epaileek elkarte horrek ez omen duelakotz herriko gaien inguruan lan egiten. Iparraldeko Herriko Etxe departamenduzaleek helegitea aurkeztea deliberatu dute, beren ustez, Batera plataformaren lau aldarrikapenek lotura xuxena dutelakotz herritarren ongizatearekin. Auziperatuak izan diren hautetsien arabera Euskal Departamendua, Iparraldeko unibertsitatea, Euskal Herriko laborantza ganbera eta euskararen ofizialtasuna gauza onak dira herritarren eguneroko bizia hobetzeko.

ESKUZ HOLAKATUA
Etxeko apaingarriak egin eta saltzen ditugu









SARA

# Herri Urrats bezperan kontzertua izanen da aurten ere

## Sarako Gaztetxeak antolaturik

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Urteroko ohiturari eutsiz, aurten ere Herri Urrats bezperan gaupasa antolatu du Sarako Gaztetxeak. Maiatzaren 7an talde bikainak entzuteko modua izanen da Sarako plazan: Psykup (Frantzia), Superbutt (Hungaria) eta Euskal Herriko Gaubele eta Mak taldeak. Animazioa, berriz, bertsolarien eta Mukaki Soun System-en eskutik izanen da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aterpea segurtatua da eta istripurik ez dute bere gain hartuko. Gazteek saratar ainitzen laguntza ukanen dute gau hortan dena ongi iragan dadin. Urtero bezala, bisitari andana espero da Saran.

### *Ezkila dorrea moldatzen*

Uztaritzeko Duhalde etxegintza lantegiak egin du elizako ezkila dorrea moldatzeko lana. Lan horretarako tresna handi bat ezarri zuten trinketeko bidea hetsiz. Zenbait langilek erabiltzen zuten tresna hori eta egiazki ikusgarria suertatzen zen.

ttipi ttapa
☎ (0033) 948635458



## AZKAIN

# Neska Korrika euripean egin zen

### Kulki elkarteak lehen urtearen bilana egin zuen biltzar nagusian



ARGAZKIA: ANGELA

**Neska Korrikako partaide batzuk, nekearengatik oinez.**

**Angela eta Xamo**

Denbora txarrak ez du partaideak izierazi. 69 neska etorri dira igande hortan korrika egitera (28 azkaindar, 30 lapurtar, baxe-nafartar 1 eta 10 nafartar).

Lehena Marina Minondo izan da, 34,03 minutuz egin du kurtsa, bigarrena Killine Castet 34,48 min., hirugarrena Danielle Brun 35,58 min. eta laugarrena Karine Higos 37,04 min.

Hiru lehenak, harri bat eta loreak izan dituzte, «Pierre des Pyrennees» eta Bereciartuak eskainirik. Gazteenak eta lehen azkaindarrak ere sari bat izan dute. Lasterketa hori Maider Laduchek antolatu du, Turismo Bulegoaren laguntzarekin, administrazioarentzat partikulazki. Bainan egun hortan, Integrazio Batzordeko kideak, Elgarrekin eta Ibiltzaile elkarteak heien laguntza ekarri dute antolaketan. Ikastolak taloak Plazan ostatuan saldu ditu egurraldiarengatik. Benefizioak Integrazio Batzordearentzat izanen da.

Egun horren antolaketa zoriondu izan da. Denbora txarra izan ere, lasterketaren lehen editioa arrakasta handia izan du. Helduden urte arte!

### *Kulki elkartearen biltzar nagusia*

Kulki elkarteak bere biltzar nagusia antolatu du gan den martxoaren 30ean, Kirol ostatuan. Jende multxo bat bildu da elkartearen lehen urtearen bilana egiteko. Kulki elkarteak Kirol ostatua kudeatzearen proiektuaren inguruan sortu da duela urte guti. Geroztik, erakutsi du urtean bertze antolaketa batzu bere gain hartzen ahal dituela, bai Telethon eguna, marmitakoa, edo elkarteen besta. Elkarte horrek bertze herriko elkarteak elgarretaratzen ditu proiektu batzuen inguruan, indar guziak bilduz. Erraten ahal dugu zubi-lana egiten duela herriko elkarteen artean, baita herriko jendeen artean ere.

Jendeen buruan azpimarratu behar da Kulki eztela Herriko Etxeko elkarte bat. Horrek erran nahi du Kulkik bere erabakiak bakarrik hartzen dituela.

### *Errugbia*

Apiliraren 23an larunbatarekin, errugbiko erreserba taldea artuko da finalean, Pomares-en kontra.

### *Paco Diaz pasa da Azkainen*

Hilabetearen hastapenean, Paco Diaz kantaria, bere alaba eta musikalariak kantatzera etorri dira Bil Toki gelan. Gau aldi hori Turismo Bulegoak antolatu du, kabare giro batean. Orotara, 80 bat pertsona hurbildu da, kantaldi eder honen inguruan.

















## EZKONTZAK

**Igor Urrutia Urtasun** eta **Maite Erize Azkarate**, Iruritakoak apirilaren 2an.

**Luis Enrique Duran Anguita** eta **Maria Mora Reyes**, Elizondokoak, martxoaren 26an.

**Alejo Etxaide Sanzberro** eta **Rosa Maria Ballarena Perurena**, Elizondokoak, apirilaren 9an.



## SORTZEAK

**Ekaitz Pombar Hernandorena**, Berakoa, martxoaren 25ean.

**Iraia Zapiain Arlegi**, Berakoa, martxoaren 26an.

**Jon Itoitz Agirretxe Pereda**, Leitzakoa, apirilaren 1ean.

**Maddi Barriola Zabaleta**, Leitzakoa, apirilaren 7an.

**Urki Usabiaga Elzmendi**, Goizuetakoa, martxoaren 18an.

**Oihana Arruti Terreros**, Lesakakoa, apirilaren 7an.

**Ivan Aranbel Fernandez**, Elizondokoa, martxoaren 20an.

**Olatz Iriarte Iturzaeta**, Arizkungoa, apirilaren 13an.



## HERIOTZAK

**Abdelhakim Neajar**, Beran, abenduaren 24an, 35 urte.

**Francisco Arribillaga Eskudero**, Goizuetakoa, apirilaren 7an, 82 urte.

**Cipriano Iribarren Iribarren**, Doneztebekoa, apirilaren 2an, 74 urte.

**Feliciana Vera Mokoroa**, Iturengoa, apirilaren 3an, 83 urte.

**Nazaria Andueza Sarasa**, Lesakakoa, apirilaren 4an, 89 urte.

**Antonio Garatea Diaz**, Elizondon, apirilaren 6an, 84 urte.

**Irene Etxenike Goñi**, Arraiozkoa, apirilaren 6an, 94 urte.

**Martin Otondo Zamarrena**, Amaiurkoa, apirilaren 11n, 86 urte.

**Ceferino Almandoz Mitxelena**, Arantzakoa, apirilaren 12an, 80 urte.



**Jose Maria**
**SANTESTEBAN GANBOA**
**I. URTEURRENA (2004-IV-21)**

*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garen artean*
*ez zaitugu ahaztuko.*

**ZURE AMA**

Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

SKEET OLINPIKOA

# Jone Fagoaga lesakarrak irabaziz ekin dio denboraldi berriari

## Valladolideko Nazioarteko Sarian eta Nafarroako txapelketan garaile






ARTXIBOKO ARGAZKIAK

**Jone Fagoaga lesakarrak, Nazioarteko proba irabazteaz gain, Miguel Indurain Fundazioaren beka jasoko du. Berekin batera, Miriam Blas beratarrak, Beintza-Labaiengo Idoia Mariezkurrenak eta Ane Bergarak jasoko dute.**

A.A.

Jone Fagoaga lesakarrak ezin hobe hasi du 2005 denboraldia skeet olinpikoan. Apirileko lehen asteburuan Valladoliden jokatu zen Nazioarteko Sari Nagusian irabazle izan zen 21 urteko tiralari lesakarra, 75 plateretatik 57 hautsi ondotik. Eguraldi kaxkarrak ez zuen marka hobea egiten utzi.

Skeet konpetizioak aitzinera eginen zuen apirilaren 10ean, Elizondoko Tiro Zelaian Nafarroako txapelketa jokatuko baitzen, 50 plateretara. Jone Fagoagak ez zuen arazorik izan emakumeen txapelketa irabazteko eta osotara, hau da, gizasemeak eta emakumeak batera hartuta, bigarren izan zen. Konpetizio honetatik aterako da Nafarroako taldea Espainiako txapelketarako eta tiralari lesakarra taldean izanen da, noski, bera baita lehendabizikoa emakumeen Espainiako rankinean.

Valladolideko Nazioarteko Saria eta Nafarroako txapelketa irabaztea ez dira izan Jone Fagoagak asteotan izan dituen berri on bakarrak. Miguel Indurain Fundazioak asteartean banatu zituen Nafarroako kirolari eta teknikari ezberdinei urtero ematen dien dirulaguntza eta bekak. Guzira 193 kirolarik hartu zuten dirulaguntza eta Jone Fagoagak 6.010 euro jasoko ditu aurten, programa olinpikoaren barnean. Laguntza preolinpikoaren izenburupean, Lesakako tiralariak 4.808 euroko beka izanen du eta bertze 1.202 euro ekitaldietarako jasoko ditu.

### Miguel Indurain Fundazioko bekak

Eskualdeko bertze zenbait kirolarik ere hartuko dute Miguel Indurain Fundazioaren dirulaguntza. Honela, atletismoan, Beintza-Labaiengo Idoia Mariezkurrenak, Espainiako jabalina jaurtiketa txapelketan bigarren izateagatik 4.808 euro jasoko ditu. Txirrindularitzan, Miriam Blas beratarrak 1.202 euro jasoko ditu, Munduko mendi bizikleta jautsieran hamaseigarren izan ondotik. Junior mailako kirolariei emandako beken barnean, futbolean, Ane Bergara beratarrak 1.202 euro jasoko ditu, Europako 19 urtez beheitiko txapelketan parte hartzeagatik. Teknikariei ematen zaien dirulaguntzen barnean ere, Idoia Mariezkurrenak 902 euro jasoko ditu, Lorea Oloriz eta Tania Sola atletak prestatzeagatik.

ATLETISMOA

# Antonio Etxeberriak irabazi zuen Leitzako 27. Herri Krosa

Beste Iruña taldeko Antonio Etxeberria korrikalaria erraz nagusitu zen apirilaren 10ean Leitzan egin zen 27. Herri Krosean, probako 10 kilometroak 31 minutu eta 15 segundutan egin zituen, Andres Perezek 1996-an egin zuen markatik (29:49) urrun. Bigarren postua Raul Amatrainentzat izan zen (32:46) eta Jose Javier Cuadradok osatu zuen senior gizonezkoen podiuma (32:54).

Emakumeen senior kategorian, Amaia Insausti izan zen garaile, 5 kilometroak 18 minutu eta 38 segundutan egin ondotik. Bigarren postua Marta Muñozek eskuratu zuen (19:18) eta hirugarrena Izaskun Zubeldiak (23:10).

Kadetetan, mutikoetan Jon Zufiaurre izan zen txapeldun (12:28), Pablo Aiestaranen aurretik (19:37) eta nesketan Maria Arrieta gailendu zen (9:29), Sara Martinez (11:16) eta Itziar Urrizen (11:28) aurretik.

Mutilen junior mailan, Mikel Iriarte izan zen irabazle (34:55), Joseba Lazkano bigarren (35:29) eta Mikel Sagastibeltza hirugarren (36:22).

Dena den, Leitzan egin zuen hotza kontuan hartuz, partehartzaile guziek ere meritu ederra izan zuten.

## PILOTA



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Eskualdeko hainbat pilotari gaztetxo izan zen Belateko eskuz binakako txapelketaren finaletan.**

# Belateko txapelketen finaletan eskualdeko pilotari aunitz izan zen

Txaruta izan da aurten ere klub txapelduna

A.A.

Joan den martxoaren 19an jokatu ziren Belateko kluben artean egiten den txapelketaren finalak Iruñerrian. Gure eskualdeko hainbat pilotari intsi ziren final hauetara eta aunitzek txapelarekin bueltatu ziren etxera.

Donibanen jokatutako partidetan, txikien mailan, Txarutako Irazoki eta Espelosinek 5-18 galdu zuten Donibaneko Medina eta Baikaikoaren kontra.

Umeak-3 mailan, Gure Txokoako Esnaola eta Pinatxok 10-18 galdu zuten Larraungo Martirena eta Igartuaren kontra.

Umeak-2 mailan, Aurrerako Olano eta Sagastibeltzak 18-8 irabazi zieten Donibaneko Aldunzin eta Fernandezi.

Umeak-1 mailan, Txarutako Elizalde eta Untxalok 18 eta 12 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Telletxea eta Beginori.

Kimuak-2 mailan, Txarutako Telletxea eta Azpirozek 3-18 galdu zuten Burlatako Agirre eta Jakaren kontra.

Galaren jokatutako finaletan, haurrak-1 mailan, Aurrerako Jaunarena eta Aranburuk 18-17 irabazi zieten Arbizuko Ansotegi eta Ezkurdiari.

Kadeteak-2 mailan, Aurrerako Olano eta Alustizak 19-22 galdu zuten Beteluko Otermin eta Goikoetxearen kontra.

Barañanen, azkenik, gazteak-1 mailan, Txarutako Goñi eta Urrutiak 22-13 irabazi zieten Baigorriko Aizager eta Eurekari.

Baztan-Malerrekako Txaruta pilota elkartea izan da, aurten ere, Belateko klub txapelduna 63 punturekin. Bigarren postuan Burlatako Zugarralde taldea izan da ia 20 puntu guttiagorekin.

## Cerezo eta Uharte garaile izan ziren Tolosako Gartziandia lau terdiko txapelketan

Apirilaren 11n jokatu zen Gartziandia lau terdiko pilota txapelketako finala Tolosan. Aitor Cerezo lesakarrak eta Toni Uharte amaiurtarrak 22 eta 15 irabazi zieten Jabier Mikelperizena eta Iban Zubieta beratarrei.

Hirugarren postua erabakitzeko partidan, Ontsalo aresoarrak eta Mujika beasaindarrak 22-19 irabazi zieten Muguruza eta Dominguezeri.



ARGAZKIA: TOLOSALDEKO HITZA

**Cerezo eta Uharte txapelekin, txapelketako bertze pilotari eta antolatzaileekin batera.**

## HERRI KIROLA

***Inaxio Perurena***

leitzarrak urteko lehen marka ahalegina egin zuen apirilaren 2an Aramaion, eta ondu egin zuen bere aurreko marka, eta baita Aimar Irigoienek zuena ere. 21 urteko leitzarrak, 215 kiloko zilindroa bizkarreratu zuen 15 segundoan, esku bakarrez. Joan zen urteko ekainaren 6an 210ekoa altxatu zuen eta zortzi hilabete ondoren berriro ondu egin du marka.

***Xabier Mindegia***

Ibarrako Unai Otañok aisa irabazi zuen apirilaren 3an Donezteben Beintza-Labaiengo Xabier Mindegiaren aurka jokatu zuen apustua. Aizkolari bakoitzak zortzi kana-erdiko eta bi oinbiko moztu behar izan zituen. Alde bakoitzak 1.500 euro jokatu zituen. Aizkolari bakoitzak bina erakusle eramateko aukera zuen. Otañok Iruntxiberri eta Mugertza izan zituen alboan; Mindegiak, berriz, bere aita eta Telletxea. Hasieran dirua Otañoren alde zegoen, 100-60ri, baina hasi eta berehala isildu ziren artekariak, berehala konturatu baitziren apustua nork eramango zuen. Lan erdietan bi minutu pasatxoko aldea zuen Otañok eta lanak amaitu zituenean, bertze bi enbor geratzen zitzaizkion Xabier Mindegiari. Bukaeran, zazpi minutuko aldea.

***Josetxo Urrutia***

Beintza-Labaiengo harrijasotzaileak Etxauriko harri zaharra sei aldiz altxatu zuen apirilaren 3an. 136,2 kiloko harri irregularra da Etxauriko harria eta altxatzeko oso zaila.

# AGENDA egunez egun

## ZINEMA

### LEITZA

**Apirilaren 29an eta maiatzaren 1ean** «Los chicos del coro» filmea zineman. Ostiralean 22:30etan eta igandean 19:30etan.

### ELIZONDO

**Apirilaren 21ean** «Undergraund» filmea Gaztetxean 21:00etan.
**Apirilaren 28an** «Juan Sin nadie» filmea Gaztetxean 21:00etan.

## KONTZERTUAK

### BERA

**Apirilaren 25ean** Venezuelako Jesus E. Alvarezen kontzertua 20:00etan Kultur Etxean, Hondarribiko Nazioarteko Gitarra Jaialdiaren barrean.

### ELIZONDO

**Apirilaren 22an** Pottoka Lur diskotekan, 0:00etan.
**Apirilaren 23an** Kontrakalea Ekintza taldea Lur diskotekan, 23:00etan.
**Apirilaren 29an** Los Moñas taldea Lur diskotekan, 0:00etan.
**Apirilaren 30ean** Urgabe taldea Lus diskotekan, 0:00etan.
**Apirilaren 30ean** kontzertua eskainiko dute Gaztetxean Ufestuek eta Mundo Matadero taldeek.

### URDIAIN

**Apirilaren 23an** Nafarroa Oinezen aldeko rock kontzertua Urdiaingo pilotalekuan 21:30etan. Dubet, The Reventones, Berri Txarrak, Stupenda Jones, Gatillazo eta Muted.

## ANTZERKIA

### IGANTZI

**Apirilaren 30ean** Cuenta Clásicos taldeak «Tormeseko Lazarilloa» eskainiko du 21:30etan Baratzondo Zahar Etxean.

## TELEBISTAKO TXOKOA



ELIZONDOKO ARKUPE GOZOTEGITIK

# Erreportai frexko-frexkoa Ttipi-ttapa Telebistan

Ez da oraingoa ttipi-ttapa telebistak gastronomiarekin duen harremana. Aspaldiko urteotan, Eltze beroan saioaren bitartez, eskualdeko hainbat jatetxetako errezeta goxo eta gustagarriak helarazi ditu etxeetako pantailetara. Orain, negua gibelera utzi dugula eta udaberrian murgildurik gaudela, tarteka bederen izaten diren eguraldi beroek janari frexkoak dastatzera bultzatzen gaituzte. Horietako jaki bat izozkia da. Berez, urte osoan jaten ahal bada ere, jakina da izozkia jateko gogoa uda partean pizten zaigula. Postrerako edo nahi denean hartzeko, noiznahi gustagarria da izozki frexko-frexko bat. Ttipi-ttapa Telebistak ortziral honetan eskainiko duen erreportaian, Elizondoko Arkupe gozotegira hurbilduko da Joseba Olagarai kazetaria. Bertan, Santiago Urtasun gozogileak limoizko izozkia nola egiten duen argituko digu pausuz-pausu. Ezagunak dira Arkupe gozotegiko pastak, txokolateak eta bertzelako gozoak, baina etxe honetan urte aunitz dituzte izozkiak egiten ere. Beharrezko osagaiak, lan-prozesua, eta sukalde barnean gordetzen diren hainbat sekretu aipatuko ditu Santiago Urtasunek. Beraz, begirik ez kendu ortziraleko erreportaiari eta on egin!!!

## CD+DVD



**«Minuette»**

**NIKO ETXART eta HAPA-HAPA**

*ELKAR, 2005*

Musika eta kantuen sorkuntzan, aldi oro bi etorri ezberdinetako urak nahasten dira batean, bata bertzearen muturrekoak izanik, bata bertzearen osagarri direlarik: tradizioaren oroimenaren heredentzia batetik eta gerora (batez ere gaztaroaren garai sutsuan) jasotzen diren kanpoko eraginak zein ereduak bertzetik. Bi osagai horien arteko orekaren majiak ebokazio apartak irudikatzen ditu eta hauxe lortzen duten artistak, beraz, bereziak dira, gugan beti bizirik baitira. Niko Etxart alde honetatik aparta eta berezia dugu. Bere karrera mamitsuan liluraz eta zentzumenez betetako kantu ugari topatzen dugu eta honexek bermatzen du honako «Minuette». Emozioz, originaltasunez eta indarraz betetako kantu melodikoak topatzen ditugu bertan, rock-blues kontzeptuan ekoiztuak.

## BASERRIA

Datu iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Apirilaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo). 38,00 € (-2,00)

**Zerri gizena**
1,066 € kiloa (-0,030)

**Zerramak:**
0,550 € Kg/bizirik. (-0,030)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,57 (=)
**1.koa** 3,37 (=)
**2.koa** 3,24 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,67 (=)
**1.koa** 3,50 (=)
**2.koa** 3,31 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 245,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,30 / 5,50
8-10 kilokoak: 4,20 / 4,70

## JAKIN BEHARREKOAK

# Argaltzeko, kontuz dieta eta estetika-ebakuntzekin

### Kontsumitzaileak idatzizko informazio zehatza eskatu behar du

Pertsona aunitzek, bere gorputza egungo edertasun-arauetara egokitzeko helburuarekin, batzuetan osasunerako hagitz kaltegarriak izaten ahal diren dieta zorrotzak segitu edo estetika-ebakuntzak egiten dituzte. Modak agintzen duen «pisu ideala» bilatzeak, anorexia edo bulimia bezalako eritasun larrietara ailegatzeko arriskua dakar. Dieta egin nahi duten pertsona guziak aitzinetik mediku espezialista edo dietista batera joatea aholkatzen dugu Irache elkartetik. Honek egitan soberako pisuaren arazorik baden edo ez eta dietan jartzea beharrezkoa ote den zehaztuko du. Profesional horrek ikusiko du pisua irabazteko arrazoiren bat ba ote den, eta kontraindikazio



Artxiboa
**Kontuz pisua galtzeko formula magikoekin.**

edo patologiaren bat baden edo ez. Egun gutxitan eta nekerik gabe pisua galduko duzula ziurtatzen duten "mirari-produktuekin» edo «formula magikoekin», kontuz! Eta ez erosi medikamenturik Internet bidez, orokorrean kontrolik gabe saltzen baitira. Argaltzeko produkturen bat erabili behar baduzu, aitzinetik zure medikuan galdetu, batzuk adikzioa sortu edo libratzeko produktuak eduki baitezakete.

Hartzen diren kexu eta erreklamazio gehienak, behin tratamentua akabatuta gertatzen dira, kontsumitzaileak aurrez bermatuta zeuden emaitzak ez dituela lortu ikusten duenean.

Egoera hauek ez gertatzeko, prozesu osoari buruzko informazio osoa jasotzeko eskubidea daukagula zehazten du legeak, ahoz nahiz idatziz. Informazio horren barnean sartzen dira diagnostikoa, pronostikoa eta tratamentu-alternatibak. Edozein ebakuntza egiteko, interesatuaren baimena beharrezkoa da, eta kirurgia-ebakuntza edo arriskutsua suertatzen ahal dena baldin bada, idatziz eman beharko da. Tratamentua hasi aitzinetik, beraien medikuntza-gaitasuna egiaztatzea eskatu behar zaie medikuei.

**Irache Kont. Elkartea**

## LIBURUAK



*Laguna*
**Dennis S. Miles**
**Itzulp. Andolin Eguzkitza**
*TXALAPARTA 2005*

Duela hogei urte ingelesez idatzitako liburu ederra da «Laguna». Dennis S. Miles Kuban jaio zen arren, 15 urte zituenetik Ameriketako Estatu Batuetan bizi da. Bertan ezagutu zuen Andolin Eguzkitzak. Bertan elkar epatatu. Laguntasun horren emaitza da orain Txalapartak eskaintzen duen argi-ilunez beteriko eleberri berezi hau. Maitatua denak boterea dauka, maitatzen duenak ordea ez du boterik batere. Dinamika hau da «Laguna»-ren ardatza. Maitatzeak galera dakar. Maitatzen duenak segurtasuna galduko du, hustu egingo da, eta modu ridikuluan adoratuko du maitea. Zer nolako tragedia maitatua izateko beharra ez duen norbait maitatzea! Horretarako prest dagoena mundu zoro batean biziko da eta atea ixten duen bakoitzean labanek hegan egingo dute bere buru gainetik; mundu zoro bat, non pianoa hatzak odoletan izan arte joko den.

# AGENDA egunez egun

### MENDI ATERALDIAK

**BAZTAN**

**Apirilaren 24an** Baigorriko Nafarroaren Egunera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.
**Maiatzaren 1ean** Aiako Harrietara ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**SUNBILLA**

**Apirilaren 24an** Aiako Harrira ateraldia eginen du Ulibeltzak elkarteak.

### SOLASALDIAK

**LESAKA**

**Apirilaren 22an** arrazakeriari buruzko hitzaldia eskainiko du Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kideak Kasinoan 19:00etan.

**ELIZONDO**

**Apirilaren 29an** «Kapitalismoak hiko gaitu» izeneko solasaldia eskainiko da Gaztetxean 20:30etan.

### IKASTAROAK

**BERA**

**Apirilaren 23 eta 30ean** malabare ikastaroa izanen da kiroldegiaren kanpoko aldean 16:30etatik 19:30etara.

### LIBURUAREN EGUNA

**BERA**

**Apirilaren 22an** haurrentzako ipuin kontalaria (Estibu Mentaberri) 17:30etan liburutegian. 19:30etan helduendako ipuin kontalaria.

**LESAKA**

**Apirilaren 23an** haurrentzako ipuin kontalaria 17:00etan liburutegian.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ADOS**

• ELIZONDO. -2 eskuko pisua salgai. -Estrenatu berriko pisuak salgai.
• DONEZTEBE. - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. - Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
• BERA. -Pisu pare bat salgai. -Terrenoak eroslen dira.
• LESAKA. - Erreformatzeko dagoen baserria lur eremuarekin salgai. - Sartzeko prest dagoen pisu ederra salgai.
• BAZTAN. - Etxaltzen ari diren azkeneko 2 apartamentu salgai.
BAZTAN-BIDASOAN baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580795 / 697 978 884
ados@ados-inmobiliaria.com

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**MUGAIRI.** Pisu handi bat salgai, egoera onean. ☎ 625 703731.

**HONDARRIBIA.** 100 m²ko etxea salgai, San Pedro kalean. Eguzkitsua, hiru gela, saloi handia, sukaldea, bainua eta komuna eta ganbaran bi gela. Prezio interesgarria. ☎ 617 861965.

**BERA.** Pisua salgai Agerra auzoan. 3 logela, 2 bainu, sala, sukaldea eta trasteroa. ☎ 667 930426.

**ERRATZU.** Pisua salgai. Hiru logela, komunak, egongela, sukaldea eta trasteroa. ☎ 659471544.

## ETXEBIZITZAK
### 102 Erosi

**LESAKA** edo inguruan pisua erosiko nuke. ☎ 656 743356.

## ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisua errentan ematen da, mobleztatua. ☎ 948 630270 (arratsetan edo eguerditan).

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**LESAKA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎617298688.

## ETXEBIZITZAK
### 105 Etxe konpartituak

**BORTZIRIAK.** Etxe edo pisu konpartitua bilatzen dut. ☎ 617 185990.

**BERA.** Pisukidea bilatzen dut. ☎ 669 422122.

**IRUÑA.** Alde Zaharrean neska edo mutil bat behar da pisua osatzeko. ☎676013103 (arratsaldez).

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**SUNBILLA.** Bajera bat saltzeko. Leku-Eder karrikan. 40 m². ☎ 676 179714.

**LESAKA.** 65 m²ko lokal komertziala salgai. ☎ 627 763163.

**ELBETE-BAZTAN.** Oñaska enotegia salgai, bere etxebizitzarekin. Elizondo ondoan momentu honetan marban dagoen negozioa da. Nahi duenak ikusten ahal du. ☎ 948 452088.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Olalde taberna eta jatetxea errentan ematen dira, banaka edo biak batera. ☎ 948510213 - 948510080.

**BERA.** Garajea errentan ematen da, Berako posta etxe ondoan, behean. ☎ 948 630881 (iluntzetan).

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Salgai

**LESAKA.** Lurra salgai bi etxe egiteko. Herri ondoan, bistak herrira. ☎ 948 637934 edo 650 259605.

## ZERBITZUAK
### 208 Bertzelakoak

PSIKOANALISTA
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2 D - ELIZONDO

ARANTZA
Zurgindegia
Oteiza auzoa
ARANTZA

**ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAK**
• Etxea egin behar duzula eta ez duzula igeltserorik aurkitzen?
• Pisua pintatu behar duzula eta aurrekontu bat egitea nahi duzula?
• Etxean erreforma batzu egin nahi dituzula eta ez dakizula nora joan?
Hurbildu zaitez ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAK Elizondon duen bulegora eta behar duzun profesionalaren (igeltseroa, zurgina, iturginea, elektrizista, pintorea ...) eta egin nahi duzun erreformaren aurrekontua prestatuko dizugu inongo konpromezurik gabe.
Santiago 47 • ELIZONDO • 948 580795

## LANA
### 301 Eskariak

**Emakumea** eskaintzen da haurrak eta zaharrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 600 048338.

**C + E gidabaimena** duen mutila eskaintzen da lanerako. ☎ 655 706363.

**Zurgingoan** lehen mailako ofiziala eskaintzen da, sukaldeak, armarioak eta ateak montatzen esperientzia duena. ☎ 669 266192.

**Berako neska** batek lanegiten luke edozein lanetan. ☎ 600 254714.

**Berako emakume** batek garbiketa lanetan edo umeak zaintzen lan eginen luke astelehenetik ostiralera. ☎ 627 935603.

**Emakume bat** eskaintzen da etxeak eta landa etxeak garbitzeko. Esperientziarekin. ☎ 948 635231.

**Bidasoaldean** lan egingo nuke lantegi batean. Esperientzi handiko langile gaztea. ☎ 657 732451.

**Lan bila zabiltza?**

LAN ESKAINTZA
OSASUNBIDEA
Bete behar du:
- 126 erizain.
- 15 fisioterapeuta.
- 14 langile sozial.
- 15 laborategiko teknikari.
- 14 izpi-teknikari.
- 65 erizain-laguntzaile.
- 57 zaintzaile.
- 37 zeladore.
INGURUMEN ZAINDARIAK eta NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOAK
- 17 lanpostu libre

LAN ESKAINTZA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK
Lanpostu libreak:
- 161 osasunbidea eta foru administraziorako.
- 16 udaletxetarako.
- 1161 Estaturako.
SUKALDARIAK
SUKALDE LAGUNTZAILEAK
- 25 lanpostu libre Osasunbiderako.
- 36 lanpostu ikastetxe, erresidentzietarako.

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

## LANA

### 302 Eskaintzak

**ELIZONDO.** Ezarri behar den supermerkatu berri batek langileak behar ditu postu ezberdinetarako. Interesa duenak curriculuma bidali behar du helbide honetara: 1069 Posta Kutxa; 31080 Iruñea (Nafarroa).

**BERA.** Jatetxe batean astebururtan eguerditan lanegiteko kamarera behar dugu. ☎ 948 631394.

**DONEZTEBE.** Bordatxo dantzalekuan zerbitzari euskaldunak behar dira. ☎ 629 694443.

**IRUÑA** inguruko industrialde batean, Bar Restaurante La Estación-en, zerbitzaria behar da. Lantegi-ingurua denez, asteburuetan libratzen da. ☎ 948 351822.

**Irakasleak.** Nafarroan 465 plaza bete behar dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak.** 106 haur hezitzaile, zaintzaile postu bete behar dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea.** Bete behar du: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 izpi-teknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak**, garbiketa langileak. Lanpostu finkoak ikastetxe, erresidentzia eta udaletxetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Mendi subzeladoreak.** 12 lanpostu libre. Abudo sartzeko. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Sukaldariak**, sukalde laguntzaileak, 25 lanpostu libre Osasunbiderako, 36 ikastetxe eta erresidentziatarako. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Gidariak.** Abudo sartzeko: udaletxetan, Nafarroako Gobernuan eta Foru Administrazioan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.
















**Administrari laguntzaileak.** 161 lanpostu libre Osasunbiderako eta foru administraziorako, 16 udaletxetarako eta 1161 plaza Estatuan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ingurumen zaindariak.** Nekazaritzako ingeniari teknikoak. 17 lanpostu libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak.** Operarioak, soldatzaileak, igeltseroak. Lanpostu libreak Burlata, Miranda de Arga, Lizarra, Torres del Rio, Barañain eta Iruñan. Eskolaratze Ziurtagiritik aurrera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.




## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Citroen Saxo** VTS 16v autoa salgai. NA-AP matrikuladuna, urdin kolorekoa eta extra aunitzekin. ☎ 669 010656.

**Ford focus** TDCI salgai, etxeko garantiarekin. ☎ 679 892622.

**Citroen Xantia** 1.9 TD autoa salgai, 1999koa, kondizio onean. 98.000 km eta prezioa 8.000 euro. ☎ 677 663786 - 948 637852.

**Peugeot 306aren thunder-a eta Koni suspentsioa** salgai, egoera onean. Biak 300 euro. ☎ 637 181976.

**Suzuki Vitara** salgai, gasolinakoa, SS-AL matrikuladuna. 96.000 km. ☎ 677 504802.

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

**Pointer** arrazako zakurkumeak opari emateko. ☎ 676 434624.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Bi miga** gazte salgai. ☎ 948 634166.

**Hiru ahari** salgai, buru-motzak. ☎ 618 962563.




## DENETARIK

### 701 Galdu-aurkituak

**BERA.** Mutiko baten zamarra galdu da, urdina eta grisa. Topatu duenak itzuli dezala, mesedez, Berako kiroldegian.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Oinez edo laisterka ibiltzeko zinta** salgai. Osagarri ugari dituena eta egoera onean dagoena. ☎ 948 631017.

**Teila zaharra** salgai. ☎ 948 453037.

**FW balantza elektronikoa** TEC markakoa, kaja registradora bere kajoiekin eta kamara bitrina espositorea, 1,30 metrokoa, biestanterekin salgai. ☎ 948 450908 - 628 166330.

**Bonbardinoa** erosiko genuke, tantarro bat egiteko. ☎ 659 110904.

Bota dugun etxe bateko **ixkin harriak eta pareta harriak** salgai, erdi prezioan. ☎ 620 529481.

## DENETARIK

### 703 Bertzelakoak

**Sokatirako** argazkiak lortu nahi nituzke, partikularrenak, 1990 hamarkadakoak. ☎ 636 160711.

# ORDOKI ALTZARIAK



## ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA







ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

# KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irrati, telebista eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen antolaketa eta gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN, ZERBITZU INTEGRALA




Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

# r s l k mus k u

n

r l 23 l run t

tuc kus rr

perFusión

t l r k n





Funky H -H

NIGHT E ME S

T l kus rr r k n

r tx n l h n h rtu zur tr xk

r AMEZTIA s r

BIXEN OSTATUA

EL CAFE

TITI

r I INTZI